

hh
hik hasi

Gonzalo Larruzeari elkarrizketa
Gizarte Zientziak ingelesez
Pedagogo sortzaileak:
Angelica Olvera
Jolas-terapia hezkuntzan
Orbela aterpetxea
Zuriñe Hidalgo, atzeko atetik



FINLANDIARI SO

UDABERRIKO IRAKURGAIK

8-12
urte

haurrak



Munstro txikiak
Hagintxoren tripako mina

Xabier Mendiguren eta Alaine Agirre + 'Belatz'



Armiarmak parapentean

Maribel Aiertza + Jokin Mitxelena



Astroak gara

Pello Añorga + Mikel Valverde



Pikondoaren balada (Lizardi saria)

Leire Bilbao + Maite Mutuberria

elkar

www.elkarargitaletxea.eus

AURKIBIDEA

GAIA / 10

FINLANDIATIK IKASIZ

Berdintasuna eta kalitatea dira Finlandiako hezkuntza-sistemaren bi zutabe nagusiak. Eta hezkuntza-sistema bera herrialdearen ongizatearen eta garapenaren oinarri. Gako ugari ditu Finlandiako hezkuntza-sistemak, eta horiek ezagutzeko xedez han izan dira Euskal Herriko 65 irakasle Hik Hasi-k antolatutako bidaia pedagogikoan. Bertan ikasitakoa jasotzen da aldizkari honetako gai nagusian.

ELKARRIZKETA / 18

GONZALO LARRUZZEA

“Didaktika eta Antolaketa Eskolan” arloan doktorea da Gonzalo Larruzea. Uneotan Jaurlaritzako Hezkuntzako ikuskaria da, baina urte asko daramatza hezkuntza arloan lanean: irakasle, zuzendari, sindikalista, aholkulari... Euskal eskolek autonomia handiagoa behar dutela defendatzen du, baina ez lehiakortasuna bultzatzeko, baizik eta eskola-komunitatea ahaldunduz eskola proiektu sendoak sortzeko.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Aritz Larreta, Josi Diarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines

Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karnele Perez Urraza, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: GrafIk.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANtZA S.A.L Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2017-05-02).

Kopurua: 4.100 ale.

Hik Hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzuke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Autonomia eta konfiantza ardatz, sistema osoa eragile

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Finlandiari so: sistema bera da giltza

18 ELKARRIZKETA

GONZALO LARRUZZEA

“Pedagogiaren arloan autonomia handiagoa behar dute zentroek; planteamendu irekiagoak egiteko aukera eman behar zaie ikastetxeei”

26 EKARPENA 1

Gizarte Zientziak ingelesez

30 EKARPENA 2

Angelica Olvera

34 GALDEIDAZU

JOLAS-TERAPIAKO EUSKAL HERRIKO ELKARTEA

Jolas-terapia eskolan

38 PROPOSAMENA

Orbela Aterpetxea


40 ATZEKO ATETIK

Zuriñe Hidalgo

42 ARGITALPENAK



IZEI eta HODEI



'HERENEGUN'EK H DARAMA?

BAI!

ETA 'ATZO'K?

EZ
'ATZO'K
EZ

NEREAA! ETA 'BIHAR'EK?

BAAA!

HAU EROMENA! ZENBAT ALDATZEN
DIREN 'H'AK EGUN BATEK BESTERA!

!!!

Autonomia eta konfiantza ardatz, sistema osoa eragile

editoriala

AUTONOMIAK HEZKUNTZA-PROIEKTU BAT EDUKITZEA ESAN NAHI DU, KOMUNITATE OSOAREN ARTEAN ERABAKITAKO HEZKUNTZA-PROIEKTU BAT, HORRETARAKO BEHARREZKO BALIABIDEAK ESKURATUZ ETA PROZESUAK GARATUZ.



U rte baten baitan, gutxi asko, denboraren % 10 inguru ematen dute ume eta gazteek eskola-testuinguruan. Gainerako denbora guztia eskolatik kanpo igarotzen dute: etxean, kalean, aisialdiko ekintzetan, familian, lagunartean, ludotekan, liburutegian, gaztelekuan, parkean... Baina eskolari eta irakasleei eskatzen zaie elkarbizitza lantzeko, haur autonomoak hezteko, kooperatibismoa sustatzeko, ikasle eleaniztunak prestatzeko, umeak adimen emozionalean trebatzeko... Egia da eskolak eta irakasleek asko egin dezaketela, eta dezaketen guztia egin behar luketeela, baina gaur egun eskolaren eta irakasleen gain jartzen diren eskakizun guztiak betetzeak miraritik gehiago du errealitateetik baino.

Eskolak, berak bakarrik, ezin du. Horixe da Hik Hasik antolatuta Euskal Herriko 65 irakaslek Finlandiara egin dugun bidaiatik atera dugun ondorioetako bat. Izan ere, herrialde eskandinaviarrean gizarte osoa dago haurren heziketari begira; sistema bera da giltzarri, bere osotasunean, hezkuntzaren arloan hain eredugarri bilakatu den nazioan. Eta, sistema diogunean, umea erdigunean jarrita lanean diharduten entitate guztiez ari gara: ikastetxeez, noski, baina baita gobernuaz, administrazio lokalez, politikariek, komunikabideez, familiek, aisialdiko zerbitzuez, liburutegiek, gizarte zentroz eta bestelako elkarteek ere. Horiek guztiek, elkarreaginean, osatzen dutelako sistema.

Eta, horrek ez du esan nahi, inondik inora ere, eskolak eta irakasleek eurei dagokien ardura hartu behar ez dutenik. Kontrakoa baizik. Ikasi

dugu Finlandiatik ikasleen heziketa-prozesua aberatsa izan dadin zein funtsezkoak diren bi balio: autonomia eta konfiantza. Haurren autonomia sustatzea eta haiengan konfiantza izatea batetik; eta bestetik, ikastetxeei eta irakasleei autonomia eta konfiantza ematea, zentroko eskola-proiektua taxutzeko, euren jardun pedagogikoa diseinatuz, lan-taldeak egituratzeko, ordutegiak eta aztergaiak finkatzeko, sustatu nahi dituzten balioak zehazteko... Ahaztu gabe autonomiaren eta konfiantzaren infrentzuan konpromisoa eta erantzukizuna daudela. Horra hor, Euskal Herriko hezkuntza-sistamarako ere balio dezaketen bi oinarri: autonomia eta konfiantza.

Hain zuzen ere, horixe bera defendatzen du aldizkari honetako elkarrizketa nagusian Gonzalo Larruzea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako ikuskariak: autonomia handiagoa behar dutela zentroek; planteamendu irekiagoak egiteko aukera eman behar zaiela ikastetxeei. Izan ere, Larruzearen hitzetan, autonomiak, beste ezeren gainetik, hezkuntza-proiektu bat edukitzea esan nahi du, komunitate osoaren artean erabakitako hezkuntza-proiektu bat, horretarako beharrezko baliabideak eskuratuz eta prozesuak garatuz: “Gizarteak, nolabait, bere hezkuntza-sistema autogestionatu egin behar du, gizartea ahaldundu egin behar da eskola-komunitateetan, bakoitzak bere proiektu propio eta singularra aurrera eramanez, nork bere hezkuntza-proiektua definitzeko, eta erabakitzeko nola garatuko duen; beti ere azken xede izanik ikasleen zerbitzura egotea, haien onurari eta ongizateari begira jardutea, hain zuzen”.

“Akatsak akats, aitortu beharra dago ikastolek osatzen dutela dimentsio nazionala duen hezkuntza sare bakarra”

Tasio Erkizia



NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA KONTSEILARI JOSE LUIS MENDOZAK KARGUA UTZI DU

Apirilaren 11n Nafarroako Gobernuko presidente Uxue Barkosi dimisioa aurkeztu zion Jose Luis Mendozak, hark onartu eta Mendozak kargua utzirik, Nafarroako Gobernuko eledun Maria Solanak hartu du Hezkuntza kontseilari kargua. Kontseilari berriak adierazi du aurreko «lemaizanaren» bidetik urratuko duela bere ibilbidea.

Mendozak zuzendutako departamendua albiste iturri izan da, zenbaitetan sailean hartutako erabakien ondorioz gobernu barruan desadostasunak agerian geratu direlako —hezkuntzarako antolatutako lan eskaintza publikoaren harira, esaterako, laukoan hizkuntza gaietan dauden pitzadurak gordin biluztu ziren—, beste askotan oposizioak hezkuntza gaietan ere hortzak zorrotz eta aseezin erakutsi dituelako, eta hainbatetan sektore barruan ongi ulertu ez diren erabakiak hartu direlako. Mendozak ez du zehaztu, hala ere, zein izan den orain lema uztera eraman duen zioa. Mendozaren jardun polemikoen artean hezkuntzarako deitutako lan eskaintza publikoa dago; aurrena harrabotsa ozendu zen hizkuntz eskakizunengatik: 320 lanpostu eskaini zituzten, 228 euskaraz eta 92 gaztelaniaz. D eredua eremu ez-euskaldunean dauden eskola publikoetara eramatea ere egokitu zaio; erroka handia izan da eredua eskaintzen duten ikastetxeak ugaritzen joatea, eta horretarako komunikazio kanpaina egokiak egin diren auzitan jarri da hainbatetan. PAI ereduaren ebaluazioa egiteko asmoa ere hasieratik adierazi zuen. Eta aski kritikoa azaldu zuen iritzia: «PAI ezarri zen aurreikuspenik eta planifikaziorik gabe». Izan dira gehiago; 2015eko urrian, esate baterako, departamenduak atzera egin zuen hizkuntza eskolen buruzagitzarako egindako izendapenean: Imanol Haranburu euskara irakaslea hautatu zuen kargurako, baina ETAko kide ohia zela-eta UPNren inguruko sektoreetan sorturiko kritiken harira, atzera egin zuen. «Ahulezia hori erakutsi duen gobernuarentzat ez dut lan egin nahi», salatu zuen Haranburuk.



NAFARROAKO HOGEITA HAMARRETIK GORA UDALERRIK ESKATU DUTE EREMU MISTORA PASATZEA

Iragan otsailean, Nafarroako Legebiltzarrak tramiterako onartu zuen 1986ko Euskararen Foru Legea moldatzeko proposamena, eremu ez-euskalduna utzi eta eremu mistoan sartu nahi duten 11 udalerrien eskariari bide emateko. Zerrenda hori zabaldu egin da azken hilabeteetan, ordea: 11 ez, 30etik gora dira jada eremuz aldatzeko mozioak onartu dituzten herriak. Puiu eta Obanosko udalak izan dira zerrendara batzen azkenak. Eta, herri txikiak soilik ez, Nafarroa erdialdean populazio handiena duten udalerriek ere onartu baitute mozioa; Zangoza, Tafalla eta Erriberri, besteak beste.

Kontrara, ezezko gutxi jaso dituzte eremu mistora igarotzeko mozioek. Oraingoz, Viana, Añorbe eta Mañeruko udalbatzak izan dira eskaerari uko egin diotenak; mozioa babestu dutenak edo onartzeko bidean direnak, berriz, 35 inguru dira. Izan ere, mugimendu handia sortu da eremu ez-euskaldunean zonifikazioaren aurkako mozioen kontura, eta eremu mistora pasatzeko erabakia inguruko herrietara ari da hedatzen.

Orain arte, Lizarra inguruan daude agiria onartu duten herri gehienak, eta hurbil dute eremu mistoaren eta ez-euskaldunaren arteko muga. Langa hori are hegoalderago mugi daitekeela frogatu du Puiu, Erriberri eta Tafallako udalek ere mozioa onartu izanak.

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

BI GREBA EGUN EGITERA DEITU DUTE ELA-K, LAB-EK ETA STEILAS-EK ARABA, BIZKAI ETA GIPIZKOAKO HEZKUNTZA PUBLIKOAN

Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko hezkuntza publikoan martxoaren 22an eginiko grebak parte hartze «oso zabala» izan zuen sindikatu deitzaileen arabera: LAB, ELA eta Steilas. Lan baldintzak hobetzeko eta hezkuntza-sistema propioa eraikitzeko eskatu zuten, eta egoera «larria» konpontzeko «oinarrizko neurriak» proposatu. Baina Eusko Jaurlaritzak ez die erantzun. Horregatik, beste bi greba egunera deitu dute: maiatzaren 16an eta 23an. Berriz ere, unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoko irakasleei, heziketa bereziko langileei, sukaldariei eta garbitzaileei egin diete parte hartzeko deia, baita Haurreskolak partzuergokoei ere.

Gehiengo sindikalak salatu du Jaurlaritzak ez daukala «benetako» asmorik negoziatzeko. «Ezinbestekoa da Jaurlaritza azken urteetan inposatzen ari den murrizketak eta hezkuntza politika errotik aldatzea, eta horrek guztiak hezkuntza publikoan eta haur eskoletan sufritzen ari garen egoerari buelta ematea», adierazi du LABeko Maider Izagirrek.

Greba ez ezik, manifestazioak ere egingo dituzte maiatzaren 20an, 12:00etan, hiru hiriburuetan: Bilbon, Jesusen Bihotzetik abiatuko da; Gasteizen, Bilbo plaza-tik; eta Donostian, Bulebarretik. Ikastetxeetan eta beste hainbat sektoretan ere mobilizazioak egingo dituzte. Ohartarazi dute datorren ikasturtean mobilizazioen ildoari jarraituko diotela, «egoera konpondu ezean».

Eusko Jaurlaritzak, bestalde, apirilaren 11n onartu zituen aurtengo aurrekontuak. ELAren arabera, «azken urteotako murrizketa politikari jarraipena eman diote, eta mobilizazioen arrazoia berretsi dute». Sindikatuek 2008-2009ko ikasturtea baliatzen dute erreferentzia gisa, hezkuntza publikoaren kalitatearen gainbehera islatzeko. Garai hari begira egin dituzte eskaerak: hezkuntzarako inbertsioa handitzeko, behin-behinekotasuna murrizteko, lan zerrendak gutxienez 2.000 langile gehiagorekin handitzeko, erretiroa errazteko eta laguntzeko neurriak berreskuratzeke, eta ordezkapenak lehen egunetik betetzeko. LOMCE eta «haren moldaketa hutsa den» Heziberri bertan behera uztea eta euskarazko murgiltze ereduaren gaitzea ere galdegin dute. Jaurlaritzak landu nahi duen hezkuntza legeaz ere mintzatu dira: ezinbesteko jo dute sindikatuen, hezkuntza eragileen eta herritarren parte hartzea eta iritzia jasotzea.

Ikasle ratioei dagokionez, % 10 murriztea nahi dute sindikatuek. Irastorzak azaldu duenez, ikasturte honetan, gela bakoitzeko hemeretzi ume dago; 2008-2009ko ikasturtean, aldiz, batezbestekoa hamazazpikoa izan zen. «Ratioa handitzen ari dira, langile eta gela kopurua murrizteko». Irastorzaren arabera, beste 894 gela zabaldu beharko lituzkete 2008-2009ko ratioei eusteko. Aurtengo lan eskaintza publikoari —790 postu ditu—, berriz, «irrigarria» deritzo.

Nafarroan, huelgarako deialdirik ez

Elkarrizketarako borondatea da Nafarroan greba ez egitearen arrazoia. Gobernuak eta sindikatuek agenda bat adostu dute, eta, behinik behin, negoziazio ildoak abiatu dituzte. Martxoko grebaren bezperan, sindikatuek esan zuten noraino heltzen den ikusiko dutela, eta horren arabera erabakiko dutela mobilizatu edo ez.

ARRAKASTA ERABATEKOA EDUKI DU 20. KORRIKAK

Aurreko aldietan baino are jende gehiago batu du Otxandio eta Iruñea lotu dituen Korrikak, eta iruditan erakutsi du euskara biziberritzeko bidean badela elkarlanerako nahia. Joseba Sarrionandiak idatzitako mezua ibili du Korrikak lekukoaren barruan. Euskara biziberritzeko bidean zer egin badela ohartarazi zuen: «Euskararen alde egitea normaltasunaren kontra egitea da oraindik», eta honakoa gehitu zuen: «Euskararen aldeko mugimendua egonkortu egin dela esaten da, normaltasunaren alde aurrerapauso handiak egin eta normalitate moduko batean lasaiturik edo trabaturik gelditu dela euskaraz bizi ahal izateko asmo kolektiboa».

LANBIDE HEZIKETA 'DUALA' SUSTATZEKO ITUNA SINATU DU URKULLUK ENPRESEKIN

Lanbide Heziketa dualari bultzada eman nahi dio Eusko Jaurlaritzak, hainbat enpresarekin lankidetzara hitzarmena sinatuta. Ikasketak enpresetan eginiko praktikekin osatzea da itunaren helburua. Egun, 1.200 ikasle eta 700 konpainia biltzen ditu egitasmoak, baina, 2020rako, 7.000 ikasle eta 5.000 enpresatara zabaldu nahi dute.



UZTAILAREN 3, 4 ETA 5EAN DONOSTIAN, ETA 6 ETA 7AN LEIOAN EGINGO DIRA HIK HASIREN UDAKO TOPAKETAK

Hik Hasi egitasmo pedagogikoak antolatuta, urteroko legez, Udako Topaketak egingo dira uztail hasieran, irakasleei, hezitzaileei, gurasoei nahiz heziketaren arloko profesionali zuzenduta. Uztailaren 3, 4 eta 5ean Donostian, eta, 6 eta 7an Leioan izango dira. Besteak beste, ondoko gaiak jorratuko dira: pedagogia sistemikoa, mindfulness, ipuinak, adimen anitzak, antzerkia, musika, Montessori pedagogia, heziketa emozionala, askatasunerako pedagogia, haurraren autoestimua, motibazioa, mitologia, psikoterapia eta gorputz hezkuntza... Matrikula egiteko epea maiatzaren 1ean irekiko da eta hikhasi.eus webgunearen bidez egin ahalko da izen-ematea.



URRIAN REGGIO EMILIAKO HEZKUNTZA- PROIEKTUA EZAGUTZEKO BIDAIA PEDAGOGIKOA EGINGO DU HIK HASIK

Italiako Reggio Emilia hirian hamarkadatan garatzen ari diren hezkuntza-proiektu aurrerakoi eta emankorra ezagutzeko bidaia pedagogikoa antolatu du Hik Hasik, datorren urrirako. Hilaren 11, 12 eta 13 formazio egunak izango dira, arlo teorikoa ezagutzeko aukera izango da, eta ikastetxeetako bisitak egingo dira (0-3ko zentroak, 3-6 urte bitarteko ikastetxeak eta 3-11 urte bitarteko Loris Malaguzzi zentroa bisitatuko dira).

Ekainaren 1ean zabalduko da bidaiaren parte hartzeko izen-emateko epea, eta taldea osatzen baldin bada, urriaren 10etik 15era egingo da bidaia.

HARREMAN-EREDU SANOEI BURUZKO JARDUNALDIA EGINGO DA MAIATZAREN 19N ETA 20AN DONOSTIAN

Harreman-ereduen inguruan hausnartuko dugu III. HERRI HEZITZAILEA ESKOLA HERRITARRA jardunaldietan. Herri-mailan, talde-dinamiketan, eskola-giroan, edota familia-testuinguruetan bestelako harreman-eredu batzuk sustatzea da jardunaldion helburua, harreman osasuntsuak, indarkeria gabekoak, errespetuzkoak, horizontalak eta parekideak posible direlako. Aurreko ekitaldietan bezala, eskolako kontestuari eta herri-mai-lakoari begiratuko die jardunaldiak, beti ere harremanen inguruan.

Besteak beste, Lorea Agirre, Ane Ablanado, Miren Camison, Alfredo Hoyuelos, Arremanitzeko Ibon Arrizabalaga eta Emagineko Edurne Epelde, Donamartiriko Arberoa ikastolako irakasleak, Agueda Larauogoitia edota Amelia Barquin izango dira hizlari, eta baita nazioarteko hainbat ahots ere. Finlandiako Hezkuntza Nazionaleko aholkulari Leo Pahkin eta *Cuadernos de Pedagogia*ko zuzendari Heike Freire pedagogo ere Donostian izango dira.

Maiatzaren 19an eta 20an izango da jardunaldia Donostian, Hik Hasik Oinherriko beste erakundeekin elkarlanean antolaturik. Izena emateko epea maiatzaren 12an bukatuko da eta www.hikhasi.eus webgunearen bidez egin ahalko da matrikula.

HIZPIDE IZANGO DA

MAIATZAREN 14AN IZANGO DA HERRI URRATS, ETA 21EAN SORTZENEN JAIA

Ikastetxeen aldeko jaietan hurbilena Iparraldeko ikastolen jaia izango da, hil honen 14an ospatuko baita Herri Urrats, Senpereko lakuaren bueltan. Hurrengo igandean, maiatzaren 21ean eskola aktibo eta anitzaren aldeko aldarria egin nahi du euskal eskola publiko berriaren elkarteak, Sortzenek, Iruñean. Hurrengo asteburuan hitzordua Mungian izango da, Ibilaldiarekin. Euskal Eskola Publikoaren jaia, berriz, ekainaren 4an egingo da Gasteizen, eta hamabost egunera, ekainaren 18an, Araba Euskaraz egingo da, Bastida ikastolaren alde.



ADOPZIOAREN GAIA JORRATUKO DU BERRITZEGUNEAK MAIATZAREN 10EAN

Adoptaturiko ikasleei eskola inklusiboan eman beharreko hezkuntza-erantzuna zein den bilatuko dute hil honen 10ean Bilbon egingo duten jardunaldian. Berritzeguneak antolatuta Ingeniaritza eskolan (9:30etatik 14etara) Jose Luis Gonzalo Marrodan haur eta helduen psikologo eta psikoterapeutak, Carmen Albes eta Lorea Aretxaga Berritzegune nagusiko inklusio aholkulariek eta Jose Luis Alberdi eta Jesus Mari de la Maza HH eta LHko aholkulariek hitz egingo dute.

Maiatzaren 25ean, bestalde, musika irakasleen arteko harremanak sendotzeko eta esperientziak trukatzeko jardunaldia egingo da Bilboko Arriaga kontserbatorioan. Informazio osoa berritzegunearen webgunean dago.

DONOSTIAKO ULIA MENDIAN BASO-UDALEKUA EGINGO DA UZTAILEAN

Bihotz Inguru baso-udalekua, Donostiako Ulia mendian aurrera daramaten baso-eskola proiektuaren isla da. Haurrak naturan jolastera gonbidatu nahi ditu pedagogia adeitsu horren irizpideak jarraituz, eta eskola-egitaraura ez ezik, udara zabaldu dute orain baso-udalekuen bidez. 3 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzenduriko udalekua da, eta uztailaren 3tik 38ra egingo da. Izen-emate-epea ekainaren 9an itxiko da. Informaziorako eta inskripzioa egiteko, bihotzinguru@gmail.com helbidera jo daiteke.





Berdintasuna eta kalitatea dira Finlandiako hezkuntza-sistemaren bi zutabe nagusiak. Eta hezkuntza-sistema bera herrialdearen ongizatearen eta garapenaren oinarri. Sendoa da Finlandiako hezkuntza-sistema. Irakasleek, herritarrek, komunikabideek eta politikariek babesten dute. 70eko hamarraldian erreforma sakona egin zuten eta ordudanik, boterean aldaketak egon diren arren, politikariek adostasunari eutsi diote gaurdaino. Gako ugari ditu Finlandiako hezkuntza-sistemak, eta horiek ezagutzeko xedez han izan dira Euskal Herriko 65 irakasle Hik Hasi-k antolatutako bidaia pedagogikoan. Bertan ikasi eta bizi izandakoak jasotzen dira artikulu honetan.

GAIA:

FINLANDIARI SO

Sistema bera da giltza

Zero azpiko 15 graduko tenperaturan, 6 urteko haur bat, bera bakarrik, eskolara joateko eskiz kilometro eta erdiko bidea egiten ikus daiteke Finlandian. Ez da arraroa adin bertuko umeak eskolatik etxera bueltan bizikletan ikustea ere. “Ama” eta “aita” esaten ikasi ondotik, “liburutegi” da haurrek ahoskatzen duten lehen hitzetako bat, eta ohikoa da urtebete izan baino lehen ere umei liburutegiko txartela egitea. 16 urterekin bere kasa bizitzen jarri ez dena, beranduenera ere 18 urterekin ateratzen da Finlandian gurasoen etxetik, gobernuak laguntzak ematen baitizkie horretarako, baina arrunta da adin-modu horretatik aurrera ikasketak lanarekin uztartzea ere. Enpresetan, berriz, astean behin edo bitan etxetik lan egiteko aholkatzen diete langileei eta gehien irabazten dutenek soldataren erdia gasta dezakete zergak ordaintzen. Puntualitatea sakratua da finlandiarrentzat, semaforoa gorrian dela errepidea gurutzatzen duenari arraro begiratzen diote eta edozein ordutan edozein kaletan lasai paseatzen dute.

Horiexek dira munduko hezkuntza-sistema eredugarrienetako bat duen herrialdearen ezaugarrietako batzuk. Askatasuna, konfiantza eta errespetua dira komunitate suomiarren hiru zutabe nagusiak gizartea antolatzerako orduan, eta beraz, baita hezkuntza-sistema egituratzerakoan ere. Hain zuzen ere, hori bera da hitza: sistema; Finlandian hezkuntza-sistema bere horretan delako ona, ez dute hitz egiten puntako zentro honetaz edota esperientzia eredugarri bat garatzen ari den beste eskola hartaz, baizik eta hezkuntzaz, bere osotasunean. Izan ere, haurra eta haren zaintza nahiz heziketa gizartea antolatzeko moduaren erdigunean jartzen saiatzen dira, eta ikasle orok prestakuntza altua izateko duen eskubidea bermatzen. Hain arrakastatsua den hezkuntza-sistema ezagutzeko Helsinkin izan dira Euskal Herriko 65 irakasle Hik Hasi-k antolatutako bidaia pedagogikoan. Päivi Lindberg eta Eeva Pentilla hezkuntzako adituen eskutik

azalpen orokorrak jasotzeaz gain, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, eta Bigarren Hezkuntzako hainbat zentro ikusteko aukera izan dute, baita liburutegiak, gizarte-zentroak nahiz unibertsitatea bisitatzeko ere.

1970eko hamarraldian jarri zen indarrean gaur egun ezagutzen den Finlandiako hezkuntza-sistema. “Zorionez, garai hartan oso politikari jakintsuak izan genituen eta hezkuntzari zentralitatea ematea erabaki zuten. Harrezkero argi izan dugu gure herrialdea aurrera ateratzeko bi aberastasun-iturri nagusi ditugula: zuhaitzak eta basoak alde batetik, eta pertsonak eta haien burmuinak bestetik. Hortaz, horiek zaintzea dagokigu”, dio Pentillak zorrotz.

Eta azken 40 urte baino gehiagoko hezkuntza-politika ari da emaitzak ematen. PISAko datuen harira bilakatu da Finlandia kalitatezko hezkuntzaren ikur, baina emaitzok finlandiarrek bazekitena baieztatu besterik ez dute egin: munduko hezkuntza-sistemarik onenetakoa duela herrialde eskandinaviarrak. Finlandiak lortzen dituen emaitza bikainak, gainera, ekitatiboak dira, ikasle gehienek lortzen dituzte goi mailako puntuazioak, eta oso ikasle gutxi emaitza kaxkarrak. Oro har, herritarren hezkuntza-maila eta eskolatzeta-tasa altua da. Helduen artean, gutxienez herenak unibertsitateko maila gauditua du. Zailtasunak dituzten ikasleei laguntzeko, berriz, estrategia zehatzak diseinatu dituzte, eta, horren ondorioz, ikasturtea errepikatzen duten ikasleak % 2 dira soilik. Gainera, ia-ia ikasle guztiak amaitzen dute Oinarrizko Hezkuntza: porrota % 0,3koa da. Eta Oinarrizko Hezkuntza amaitutakoan, % 96k jarraitzen dute ikasten. Berdintasuna eta kalitatea, dira bada, Finlandiako hezkuntza-sistemaren bi zutari nagusiak. Eta hezkuntza-sistema bera herrialdearen ongizatearen eta garapenaren oinarri.

Aurten betetzen ditu ehun urte Finlandiak estatu indepen-

GAIA: FINLANDIARI SO

Sistema bera da giltza

dente gisa, eta ia 50 urteko sendotasuna du hango hezkuntza-sistemak. 1917an, Errusian iraultza egin zutela baliatuz, independentzia aldarrikatu zuen Finlandiak edo Suomiko Errepublikak, Suediaren menpe ia 700 urte bizi izan ondoren. Europako herrialde handienetakoa da azaleraz, baina txikienetakoa dentsitatez. Herrialdearen zatirik handienean suomieraz mintzatzen dira, eta iparraldean laponieraz. Baina finlandiarren % 6aren lehen hizkuntza suediera denez, finlandiera nahiz suediera, biak dira ofizialak herrialdean, eta beraz, ikasleek eskoletan biak ikasten dituzte.

Sendoa da Finlandiako hezkuntza-sistema. Irakasleek, herritarrek, komunikabideek eta politikariek babesten dute. 70eko hamarraldian erreforma sakona egin zuten eta ordudanik, boterean aldaketak egon diren arren, politikariek adostasunari eutsi diote gaurdaino. Egonkortasun horren ardatzetako bat udalek duten esku-hartze maila da; erabakiak hartzeko nahiz baliabideak kudeatzeko eskumen handia baitute. Horrez gain, Hezkuntza Kontseilu Nazionala eta Hezkuntza Ministerioa arduratzen dira sistemaren antolaketaz. Beti ere, eskolen autonomia zainduz: ikastetxeek egitasmo pedagogikoa zedarritzerakoan eta curriculuma zentroaren ezaugarrietara egokitzerakoan autonomia handia dute, baita eskolako lan-taldea erabakitzeko orduan ere. Zentro bakoitzaren hezkuntza-proiektuaren arabera hautatzen dituzte irakasleak, eta profesionalik gehienak finkoak eta iraunkorrak dira.

Gako ugari ditu Finlandiako hezkuntza-sistemaren bikaintasunak, baina gako nagusietako bat sistemaren ezaugarri guztien elkarrekikotasuna da. Administrazio-antolaketa malgua, tokiko erakundeen indar eta esku-hartzea, komunitatearen presentzia, ikasleen aniztasuna zaintzea, inklusioa, aukera berdintasuna, doakotasuna, metodologia, ikasleak duen protagonismoa, ardura, autonomia... ezaugarri horiek guztiak elkarreaginean garatzen dira Finlandiako eskoletan.

0-7 urteen artean heziketa zaintza da, eta zaintza, heziketa

Haurra jaio eta eskolara joaten denera arteko aldia —alegia, 7 urte bete arte— zaintzaren arotzat hartzen da Finlandian. Umea eskolara hasten den bitartean, zaintza egokia jasotzea haurren eskubide unibertsal gisa definitzen dute. Haur Hezkuntzako aldia ere deitzen diote etapa horri, eta hezkuntza-sistemaren oinarritzat dute.

Haurrak hamaika hilabete dituen arte guraso batak edo besteak baimena har dezakete eta umea etxean zaindu. Baimen horietan soldata osoaren % 70 inguru kobratzen dute. Gurasoak lanean ari ez badira eta diru-sarrerarik ez badaukate, berriz, gobernuak oinarritzko diru-laguntza bat ematen die. 11 hilabeterekin, haur guztiak daukate Haur Hezkuntzako eta Zaintzako zerbitzu publikoetarako aukera. Baina, era berean, gurasoek umeak etxean zaintzea erabakitzen badute, horretarako diru-laguntzak daukate. Lindbergeek azaltzen duen eran, gazteenak hiru urte betetzen dituen arte umeak etxean edukitzeko laguntza handiak dituzte: “Finlandiako kasuan haurrak etxean zaintzea haurzaintzako zerbitzu publikoen alternatiba da. Kasu batean zein bestean, umearen beharrak bertsuak direla suposatzen denez, laguntza publiko handiak eskura ditzakete gurasoek umeekin etxean geratzea erabakitzen badute”. Oinarritzko diru-kopuru berbera jasotzen dute umeak etxean zaintzea erabakitzen duten familiek. Baina horrez gain, diru-kopuru gehigarri bat ere badute familia bakoitzaren diru-sarreraren arabera kalkulatu dena. Hala, diru gutxiago duten familiei laguntza handiagoa ematen zaie. Hori gobernuari dagokionez. Baina, horrez gain, udal bakoitzak bere diru-laguntza sistema dauka. Era horretan, udalak hobeto kudea ditzake bere herrian umeen zaintzarako egon daitezkeen premiak.

Gurasoek umea zaintza-zerbitzuren batera eramatea erabakitzen badute, berriz, Finlandiako legediaren arabera,



haurren eskubide unibertsala da astean 20 orduko zaintza jasotzea. Haurren batek zaintza denbora gehiagoan behar duela ikusten bada, berriz, ordu gehiago ere egon daiteke. Izan ere, hezkuntza-adituak adierazten duen bezala, haurrak babesteko ere erabiltzen dira zaintza-zerbitzu horiek. Zerbitzu horren % 14 ordaintzen dute gurasoek. Gastuaren % 30 gobernuak ordaintzen du, eta gainontzekoa udalak. Gurasoek ordaintzen duten kopurua diru-sarreraren arabera da, eta sarrera gutxiko familientzat doan da.

Finlandian etxean haurtzaindegiak antolatzeke aukera ere bada, alegia, norbere etxean besteen umeak zaintzekoa, eta zerbitzu hori ere doakoa da. Euskal Herrian kabi-etxe gisara ezagutzen direnen antzekoak lirake horiek. Kasu horretan, etxeko zainzaile batek lau ume arte zaindu ditzake —haur-eskoletako ratio berbera da hori—. Zainzaile horiek ere prestatuta daude hezitzaile izateko, unibertsitateko ikasketak izan ditzakete, edota bestela, udalek antolatzen dituzten formazio-kursoetako ikastaroak eginak.

Lindbergen esanetan, Finlandian 0-7 adin tartean zaintza eta heziketa-sistema modu integratuan ulertzen da. “Guretzat aro horretan heziketa, irakaskuntza eta zaintza... dena gauza bera da. Europako zenbait tokitan heziketa uneak eta zaintza uneak bereizi egiten dira, baina guk dena pedagogia beraren barruan sartzen dugu. Gure ustez, aldi horretan heziketa zaintza da, eta zaintza, heziketa”. Eskaintzen duten zaintza-zerbitzua, ordea, oso zabala da —haurtzaindegi batzuk goizez ez ezik, arratsaldean zein gauez ere irekita daude, ordutegi berezian lan egiten duten gurasoentzat—, bermatu nahi baitute ume guztiek aukera berberak izatea zainketa eta heziketa egoki baterako. Era berean, familia-bizitzaren eta lan-arloaren arteko kontziliatzea ere sustatu nahi dute.

Haurra, eskubideak dituen herritarra

Gaur egun ezagutzen den Haur Hezkuntzako zaintza-sistema 70eko hamarraldian sortu zuten. Hasiera batean, sozialdemokraten agendaren parte zen, eta eurak izan ziren 0-7ko zikloaren defendatzaile sutsuenak. Haien helburu nagusia zen emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasuna bultzatzea eta emakumeak etxetik kanpoko lan-mundurako jauzia eman zezan erraztasunak jartzea. 2000. urtetik aurrera, ordea, ikuspegi hori aldatu egin zen zeharo: haurren ongizateaz hitz egiten hasi ziren orduan, eta politikaren ikuspegitik ere haurra zentralitatean jartzen. “Jaiotzatik eskubideak dituen herritar oso gisa hautematen dugu umea, gaitasunak dituena —alegia, konpetentziaduna—, baina aldi berean hauskorra dena. Beraz, gure egitekoa izan behar du gaitasun horiek garatzeko aukerak eskaintzea umeari, baina umea pertsona konpetente gisa ikusteak ez du helduon erantzukizuna gutxitu behar haur horrekiko”, azaltzen du Lindbergekek. Penttilak eranstean duenez, “haur izatea ezau-

garri bat da, pertsona guztion baitan dirauena. Helduen helburuak izan behar du haur-izaera hori ez zapuztea, guregan dagoen haurra hiltzen bada, garatzeko daukagun gaitasuna ere hil egingo delako”.

Horrexegatik guztiagatik, Lindbergekek esplikatzten duenez, 0-7 adin-tarteko zaintza-sistemaren barruan zerbitzu asko daude. Adibidez, jatorduak —gosaria, bazkaria eta askaria—: “Haurrak nahikoa eta ondo jaten duela ziurtatu behar da, horrexegatik egunero jaten dutenaren balio nutritiboak oso neurtuta daude”. Haurren babeserako zerbitzuak ere eskaintzen dituzte zaintzaren barruan: “Haurren batek babeserako zerbitzu bereziren batzuk behar baditu, eman egiten zaizkio, heziketa- eta zaintza-politikak hala zehazten duelako”. Berdin gertatzen da osasun zerbitzuekin edota bestelako zaintzekin ere —logopedak, psikologoak...—. Gainera, Haurren Heziketa- eta Zaintza-Zerbitzuek elkarlanean jarduten dute gizarteko bestelako elkarte, erakunde eta zerbitzuekin.

Zaintza eta heziketa ona bermatzeko hainbat ezaugarri izaten dituzte kontuan Finlandiako haurtzaindegi edota zaintza-zerbitzuetan:

- **Langileak:** Haur Hezkuntzako langile guztietatik heren bat irakasleak dira eta gradu mailako formazioa daukate gutxienez; langileen bi herenek, berriz, zaintza arloko ikasketak dituzte, alegia, Goi Mailako Lanbide Heziketako tituluak.
- **Ratioak:** umeek 3 urte edo gutxiago badituzte, 4 hurrekin heldu bat egoten da. Eta, legeak talde bateko haur kopurua zehaztu beharrean, hiru hezitzaile dagokion ume kopurua zehazten du. Beraz, errealitatean, gehienez 12 hurreko taldeak egiten dituzte, irakasle titulua duen zainzaile batekin eta Lanbide Heziketako titulua duten beste bi profesionalekin egoten direnak. 3-6 adin-tartean, berriz, heldu bakoitzeko 8 haur da proportzioa, nahiz eta zenbait udalek 7 haurrerarik mugatu kopuru hori —horixe da, adibidez, Helsinkiko kasua—.
- **Etxean tankerako haur-eskolak:** haur-talde bakoitza espazio anitzeko etxe antzeko eraikinetan egon ohi da. Sukaldea, tailerra, egoteko eta irakurtzeko gela, jolaserakoa, lanerakoa... izan ohi dituzte espazio horretan, haur-eskolaren arabera era batekoak edo besteak. Eskolara sartzean, oinetakoak eta berokiak kendu egiten dituzte, eta etxerako zapatilak jantzita eroso jartzen dira. Bizitokiak bezala, alfonbrekin, landareekin, apaingarriekin, lanparekin... atonduak egon ohi dira espazio horiek. Janaria eskolan bertan prestatzen dute edota auzoko nahiz herriko sukalde zentraletik ekartzen dute, eta, irakasle eta ikasle, guztiek batera jaten dute bizpahiru mahairen bueltan jarrita —7 urtetik aurrera berriz, haur bakoitzak bere janaria zerbitzatzen du

eta era autonomoan jaten—. Jan ostean, sukaldea jasotzen dute eta espazio hori bera erabiltzen dute beste hamaika eginkizunetarako.

- **Aire librean ibiltzearen garrantzia:** kanpoan jolasteko buzo eta katuska bereziak erabiltzen dituzte haurrek Finlandian. Eskolako sarreran, txoko batean gordetzen dituzte, eta sartu eta irteten diren bakoitzean jantzi eta erantzten dira. Lokatzetan, uretan, elurretan, horbelpean... egunean bi orduz ibiltzen dira, egiten duen eguraldia egiten duelarik ere. Aire librean era autonomoan ibiltzeari eta ingurunea esploratzeari berebiziko garrantzia ematen diote. Zero azpitik 15 gradu baino gutxiago egiten baditu, orduan bai, barruan geratu ohi dira.

- **Jolasean oinarritutako pedagogia:** haurrak jolasaren bidez ikasten duela kontuan izanik, oinarri horren gainean eraikitzen dute Finlandian haur-eskoletako jarduna. Barruko espazioetan, umeak nahieran ibiltzen dira batetik bestera, baina helduek asko bultzatzen dute haien parte-hartzea eta ekimena: “Azken batean, helduaren ardura pedagogikoa da egunean zehar sortzen diren momentuak aprobetxatu eta horiek heziketarako erabiltzea”. Gainera, Finlandian eskola parkeren baten, espazio librearen baten edota basoren baten aldamenen egon dadin saiatzen dira, eta hango espazioak berdegune askokoak, zabalak eta lauak direnez, gehienetan lortzen dute xede hori betetzea. Beraz, barruko espazioari ez ezik, kanpoan jolas egiteari ere garrantzia handia ematen diote.

- **Gurasoen inplikazioa:** irakasleriak gidatzen du eskola Finlandian, komunitatearekin batera, baina familiek euren gain hartzen dute seme-alaben heziketaren ardura nagusia. Hezitzaile eta gurasoen arteko elkarlana egunerokoa da, bereziki, umeak eskolara eramaterakoan eta haien bila joaten direnean elkartzen dira. Eskola batetik bestera aldeak egon daitezkeen arren, nahiko era librean sartzen eta ateratzen dira gurasoak eskolatik, haien beharren arabera. Eskolaz kanpoko txangoak, irteerak, ekitaldiak... antolatzen ere parte hartzen dute gurasoek. Horietako batzuk egiteko, gainera, eskolako instalazioak erabiltzen dituzte edozein arratsaldetan nahiz asteburuetan. Eskolako ateak beraz, irekita daude familientzat eta komunitatearentzat.

6 urterekin, LHko prestakuntzako ikasturtea

Derrigorrezko eskola 7 urterekin hasten badute ere, 6 urterekin Lehen Hezkuntzarako prestaketarako ikasturtea egiten dute haur finlandiarrek. Curriculum propioa dauka ikasturte horrek eta 2015 arte aukerakoa bazen ere, harrezkero derrigorrezkoa da haur guztientzat. Egunean hiru edo lau orduko prestaketa egiten dute gehienara ere. 13 haur egoten dira irakasle batekin; kopuru hori 20 arte zabaltzeko aukera

ere badute zentroek, baina kasu horretan beste hezitzaile bat gehitu behar izaten dute, laguntzaile gisa. Ikasturte hori haur-eskolako zentroetan egiten dute ikasle gehienek —nahiz eta kasu batzuetan eskoletan ere egin daitekeen—, eta derrigorrezko 3-4 orduak bete ostean, gainontzeko haurrekin batera egon ohi dira bestelako zaintza-zerbitzuetan. LHrako prestaketa gisa egiten duten ikasturte horren atzean dagoen oinarritzko filosofia haur-hezkuntzakoaren antzekoa da. Curriculumean zehazten den moduan, hauxe da funtsa: ikaskuntza harremanen bidez gertatzen da, bai kideen eta irakasleen artekoetan, bai ingurumenarekiko harremanean, eta, beraz, hor jarri behar da arreta. Horrez gain, LHrako prestaketa-ikasturterako Oinarritzko Curriculumak ondoko arloak zehazten ditu: haurren garapen soziala, fisikoa eta psikikoa zaintzea; jakintza eta trebetasunak lantzeko aukerak eskaintzea; elkarrenganako errespetuzko interakzioa, ikaskuntza esperientzia anitzak, eta feedback positiboa eta irudimentsua sustatzea; jolasa, ikaskuntza dibertigarri eta irudimentsutzat harturik jardutea; eguneroko zereginak praktikatzea; eta haurrak parte-hartzaile aktibo gisa haute-matea.

Autonomia eta konfiantza, hezkuntzaren zutarrri

Haur-Hezkuntzako heziketa-sistema bezalaxe, Oinarritzko Hezkuntzako nahiz Bigarren Hezkuntzako ere 70eko hamarraldiko hezkuntza-erreformaren garaian finkatu zituzten. 7 urterekin hasi eta 16-17 arte derrigorrezko eskolaz al-diko ikasketak egin behar izaten dituzte finlandiarrek. Adin horretatik aurrera, Batxilergoaren eta Lanbide Heziketaren artean hautatzen dute. Gutxi gora behera, ikasleen erdiek hautatzen dute Batxilergoa eta beste erdiek Lanbide Heziketa, baina Finlandiako hezkuntza-sistema osoak malgutasun handia duenez, edozein unetan hautatutakoa aldatzeko eta bere interesen arabera jarraitzeko aukera dute ikasleek. Hor-taz, 16-17 urterekin Lanbide Heziketa egiteak ez du esan nahi ikasketak horrekin amaituko dituenik, Lanbide Heziketa amaitutakoan ikasleak aukera baitauka bai unibertsitatera eta bai goi-mailako eskola teknikoetara joateko. “Inoiz ez zara irtenbiderik gabe geratzen. Beti daukazu batetik edo bestetik aurrera egiteko aukera”, argitzen du Pentillak.

70eko erreformak ekarri zuen beste aldaketa bat Batxilergoaren egituraketa izan zen. Oinarritzko Hezkuntzatik aurrera ez dago mailakako antolaketa zurrunik. Kontrara, ikasle bakoitzak bere ibilbidea diseinatzeko aukera du. Batxilergoko eskolak nahikoa espezializatuta daude —hizkuntzetakoa, arteetakoa, zientzietakoa, teknologikoa...—, baina eskola horietako bakoitzaren barnean, derrigorrezko lauzpabost irakasgai egin behar izaten dituzten arren, gainontzeko arlo guztiak ikasleek aukera ditzakete. Euskal Herriko kideek bisitatu zuten arteetako Vaskivuoren Lukio institu-

tuan, esaterako, ikasleek 1.000 moduluren artean aukera zezaketen, Batxilergoko ibilbide osoan zehar. “Horrek ikasleei aukera ematen die euren bidea egiteko, euren aukerak egiteko eta bizitzan zer nahi duten erabakitzeke. Gainera, Finlandia osoko ikasleak, herrialdeko edozein institututara joan daitezke. Ikasle guztiei aukera berdina eman nahi dizkiegu batetik, eta bestetik, euren erabakiak egiteko aske izan daitezen nahi dugu, baina aldi berean, erabaki horien inguruko ardurak euren gain hartzeko prestatu nahi ditugu”, dio Pentillak. Badu beste berezitasun bat ere Finlandiako Batxilergoak: norberak bere ibilbidea aukeratzen duenez, bakoitzak ikasketak bere erritmoan egiteko abagunea du: “Gutxienez bi urtetan eta gehienera lautan egin ditzakete institututako ikasketok. Adin horrekin jada finlandiar ikasleak euren bizitzaren jabe izateko nahikoa helduak direla pentsatzen dugu. Ohikoa da, adin tarte horretan ikasleak independizatzea eta ikasketak lanarekin uztartzea ere”.

Berdintasuna eta kalitatearekin batera, autonomia eta konfiantza dira Finlandiako hezkuntza-sistemaren beste bi zutabe nagusiak: haurren autonomiaz, irakasleen autonomiaz eta ikastetxeen autonomiaz hitz egiten dute batetik —autonomiaren infrentzuan ardura eta erantzukizuna daudela ahaztu gabe—; eta bestetik, ikasleengan konfiantza izateaz nahiz irakasleek eta ikastetxeek duten fidagarritasunaz. Eta, balio horiez gain, badira Finlandiako hezkuntza-sistemaren eredugarritasuna ulertzeko kontuan izan beharreko beste gako batzuk ere:

- Doakotasuna: hauxe da Finlandiako hezkuntza definitzen duen ezaugarri garrantzitsuenetariko bat. Oinarrizko hezkuntzan (7-16) dena da doan —jatorduak, materialak edota garraioa barne—; Batxilergoan nahiz Lanbide Heziketan, berriz, ordaindu behar duten gauza bakarra ikasmateriala da.

- Udalen esku-hartzea: hezkuntza, nagusiki, udal mailan dago antolatuta eta tokian tokiko erabakiak hartzen dira. Hezkuntza Ministerioak ez dauka harreman zuzenik eskolekin. Ministerioaren egitekoa da baliabideak jartzea eta legeak egitea, gutxienez 10 urtean behin curriculum berrituz, erreferentziazko eta oinarrizko lerroak markatzeko. Irizpideak markatzen dituztenak eta erabaki garrantzitsuenak hartzen dituztenak udalak dira. Hezkuntza bezalaxe, udalen eskumenekoak dira kultur eta aisialdi zerbitzuak, azpiegitura teknikoak edota gizarte zerbitzuak ere. Udal bakoitzak hezkuntzaz arduratzen den batzorde tekniko bat dauka, pedagogia arloko adituz osatua. Batzorde horren egitekoa da udalerrri horretako ikasleen hezkuntza-premia guztiak asetzea. Batzorde horrek erabakitzen du, eskola-komunitatearen eskariei jarraiki, zenbat eskola eta non jarri, eta bera da eskola bakoitzeko zuzendaria izendatzen duena ere. Baina, udalerrriaren baitan ere, eskola bakoitzak autonomia handia du.

- Ikastetxeen autonomia: eskolek askatasun handia dute Finlandian. Lindbergerek eta Pentillak dioten moduan, haien gain uzten da erabakitzeke eta ekiteko ahalmen ia osoa. Batetik, eskola bakoitzak bere hezkuntza-proiektua egiten du administrazioetik emandako gidalerroetan oinarriturik; bestetik, berriz, ikastetxe bakoitzak aukeratzen ditu bere zentroko irakasleak. Baina, aldi berean, irakasleak berak ere aukeratzen du zentroa, eskola batean lanpostu bat ateratzen denean, postu horretan interesa duten irakasleek eskaera egin dezaketelako eta horien artean egokiena aukeratzen duelako zentroak.

Ikastetxe bakoitzaren egitekoa da bertako ikasle guztien erantzukizuna bere gain hartzea. Hala dio Pentillak: “Ezin



da ikasle bakar bat ere baztertuta utzi, eta laguntza behar duenari laguntza eman behar zaio. Kalkulatuta dago 10 ikaslelik 3k laguntza behar dutela oinarrizko hezkuntzan zehar, ez nahita nahiez beti, baina bai gutxienez momentu jakin batean. Ikasle guztiek hezkuntzan maila jakin bat eskuratzeko eskubidea dutenez, era bateko edo besteko premia duenari laguntza eman egin behar zaio”.

Oro har, ikasle-talde txikiak osatzen dituzte Finlandiako eskoletan eta ordu gutxi ematen dute ikastetxean —ohikoa da 8:30 inguruan eskolara joan eta 12:30ean irtetea, nahiz eta horrez gain, eskolaz kanpoko ekintzak ere izaten dituzten haurrek—, gainera klaseak 45 minutukoak izan ohi dira eta ordubetea osatzeko falta diren gainontzeko 15 minutuak kanpoan pasatzen dituzte ikasleek. Tendentzia orokorra hori izan arren, funtsean, antolaketa horren guztiaren erabakiak eskolek hartzen dituzte euren hezkuntza-proiektuko printzipioen arabera.

- **Curriculum, orokorretik partikularrera:** eskola bakoitzak bere hezkuntza-proiektua egiten badu ere, prozesu hori pixkanakakoa izan ohi da; instituzio hainbaten, nahiz hezkuntzako aditu, irakasle, guraso, ikasle eta bestelako profesionalen arteko elkarlanaren emaitza, hain justu. Gutxi asko, hamar urtean behin berritzen da curriculum nazio mailan. Gizartean gertatzen diren aldaketek dakartzaten premia berriei erantzuten eta hezkuntza arloko berrikuntza pedagogikoak txertatzen dituzte curriculum berrituan.

Sei urte inguruko lana izan ohi dute curriculum berritzen duten bakoitzean. Hezkuntza Ministerioko Hezkuntza Kontseilu Nazionalan hasten da prozesua. Azken curriculum orain urtebete argitaratu zuten eta haren egokitzapena egiten ari dira uneotan eskoletan. Curriculum berri hori egiteko hastapenean, Kontseilu Nazionalak deituta, Finlandia osoko irakasleak elkartu ziren hainbat lan-bileratan eta arloen nahiz adinen araberako taldetan banatuta jardun zuten beharrean. Gizarteko gorabeherez eta arazo etikoez ere asko hausnartu zuten. Horrekin batera, webgune bat ireki zuten, edozein herritarrek curriculum berriaren inguruko ekarpenak egin zitzaizkien. Bi urteko prozesuaren ondoren, Hezkuntza Ministerioak curriculumaren marko orokor bat proposatu zuen, eta parlamentutik pasa ondoren, udalerrri guztietara bidali zuen. Udal bakoitzak marko hori hartu eta bere udalerriko errealitatera egokitu zuen gero —udal bakoitzak erabaki dezake, adibidez, gobernuak zehazten dituen hizkuntzez gain, bere udalerrian beste hizkuntzaren bat irakastea ere komeni ote den—. Udal mailako batzordeetan eskole-tako zuzendariak eta hainbat irakasle ere parte hartu zuten. Eta beste bi urte iraun zituen prozesu horrek. Amaitzeko, azken bi urteetan eskola bakoitzeko irakasleen egitekoa izan zen euren eskolako errealitatean oinarriturik curriculum hori zehaztea eta eskolako hezkuntza-proiektua egitea. Legearen

arabera, gainera, eskolako hezkuntza-proiektua idazterako orduan, irakasleek ez ezik, ezinbestekoa da ikasleek eta gurasoek ere parte hartzea.

- **Publikotasuna:** “Pribatua debekatuta dago Finlandian, ikasle guztiek aukera berberak izatea lehenesten dugunez, publikoa da hemen guztia”, hala diote Lindbergerek eta Pentillak. Izan ere, Finlandiako eskola guztiak soilik diru publikoarekin finantzatzen dira. Baina, “pribatua” kontzeptua existitzen da Finlandian ere. Eta, zer esan nahi du herrialde eskandinaviarrean kontzeptu horrek? Batetik, zentro horren finantzaketa gobernutik datorrela zuzenean; bestetik, berriz, eraikina eskolaren jabetzakoa dela. “Publiko” deituriko eskolen kasuan, ostera, finantziarioz herri bakoitzeko udala arduratzen da eta azpiegiturak ere haren jabetzakoa dira.

Publiko eta pribatuaren bereizketa hori kontuan izanik, Finlandian dauden 2.800 eskoletatik 50 dira pribatuak. Komunitate erlijiosoekin edo pedagogia-eredu zehatzekin dute zerikusia. Baina, proiektua aurkezten badute eta onartzen bazaie, eskola publikoen antzeko baldintzak izaten dituzte haiek ere. Beraz, egiatan, Pentillaren hitzetan, Finlandian dena publikoa dela esan daiteke: “Batzuek pribatu deitzen dieten arren, finantziario osoa gobernutik jasotzen duen eskola bat, munduko beste inongo lekutan ez litzateke hartuko eskola pribatutzat. Doakotasuna ere berdin errespetatzen da ‘pribatutzat’ zein ‘publikotzat’ hartzen direnetan”. Hori hala, Montessori edo Waldorf eskolak, kristau eskolak nahiz baso eskolak publikoak dira Finlandian, ulerturik, eskola horiek ere osoki diru publikoz finantziatzen direla, eta udalek sorturiko eskolen baldintza berberak dituztela.

Azken batean, Finlandian gobernu eta udala arduratzen dira eskola guztiei kalitatezko hezkuntza eskaini ahal izateko baliabideak emateaz. Arazoak dituzten eskolak edota hain emaitza onak ematen ez dituztenak baztertu edo ezabatu beharrean, hezkuntzaren kalitatea hobetu ahal izateko laguntza eskaintzen zaie. “Estatuak eta udalek dirua jartzen dute eskoletan herritar onak hezteko. Guretzat garrantzitsua da pertsona horiek kompetenteak izatea bizitzako hainbat arlotan, baina horrekin batera, baita zoriontsuak izatea ere”, dio Pentillak.

Finlandian gurasoek eskubidea dute hurbilen daukaten ikastetxean haurra eskolatzeko. Ildo pedagogikoa, hizkuntzen trataera edota erlijioa tarteko, urrunago dauden eskolak ere hauta ditzakete, alegia, familiek aukera dute nahi duten zentroa aukeratzeko haien seme-alabentzat, baina gehienek gertuen duten eskola hautatzen dute, eskola gehienak antzekoak direlako, hau da, desberdintasun txikiak daudelako eskolen artean eta ia guztietan bermatzen delako kalitatezko heziketa.

-Irakasleen prestakuntza: prestigio handia duen lanbidea da irakasleena Finlandian. Irakasleak zentroak aukeratzen ditu, baina era berean, irakasleei askatasun eta konfiantza handia ematen zaie euren lanean. Horren erakusle da, adibidez, Finlandian inolako ikuskaritzarik ez izatea. Ikasleek ere konfiantza handia jartzen dute irakasleengan. Badakite kalitatezko heziketa emango dietela, eta hala sentitzen ez badute, esan egiten dute, irakasleari berari, eskolako beste irakasleren bati edota etxean gurasoei.

Irakasleak unibertsitatean prestatzen dira: 5 urte irauten du oinarriko formazioak; irakasle espezializatuenak (irakasgaietakoak), 6 urte. Ikasten igarotzen duten denboraren bi heren arlo teorikoa izaten da; heren bat, berriz, praktikoa. Eskoletan praktikak gidatzen dituzten irakasleek formakuntza berezia jasotzen dute irakaslegaiak hartu aurretik. Unibertsitateko ikasketak amaitzen dituztenean, gutxienez masterreko maila izaten dute.

Baina irakaskuntzako ikasketak aukeratu nahi dituzten ikasle guztiak ez dute aurrera egiteko aukerarik izaten: eskaera egiten dutenen artean % 10 soilik sartzten dira. Lehenik sarrera-azterketa bat egiten dute; eta hori gaintzen dutenen artean elkarrizketa-saioak egiten dira. Elkarrizketa horietan irakaslegaiaren motibazioa, jarrera eta harremanetarako gaitasuna baloratzen dira, besteak beste. Horrekin batera, boluntario gisa lanean aritu izana, hezkuntza ez-formalean parte-hartzea, gizarte-lanen bat egitea, musikarako gaitasuna, edota integrazioaren aldeko jardunen batean parte hartu izana ere baloratzen dira.

- Hizkuntzen irakaskuntza: finlandiarrek hizkuntzen ikaskuntzari garrantzia handia ematen diote. Suomiera dute euren bizitzetan oinarri, baina hiztun gutxi direnez — sei milioi inguru —, eta ingurukoekin zerikusi gutxi duen hizkuntza dutenez, beste herrialdeekin harremanak izateko ezinbestekoa dute kanpoko hizkuntzak ikasteak. Ofizialki Finlandia herrialde elebiduna bada ere — suomiera eta suediera dira bi hizkuntza horiek —, praktikan hirueletasunaz hitz egin behar da, finlandiar guztiak lortzen dutelako ingelesa ere egoki erabiltzea.

Bigarren hizkuntza ikasten, eskolaren arabera, LHko 1., 2. edo 3. mailan hasten dira. Ia ikasle guztiak ingelesa hautatzen dute 2. hizkuntza gisa, baina etxetik beste ama-hizkuntza bat dakartelako badira alemana, frantseza, espainiera... aukeratzen dutenak ere. Haurrak lehen hiru urteetan hizkuntza horietakoren bat hartu badu, 4. mailan derrigorrez ingelesa ere ikasi beharko du. 6. mailan, berriz, legez suediera ikasi behar izaten dute, eta 7. mailan 4. hizkuntza bat ere aukera dezakete, eta Batxilergoan gehiago. Edozein kasutan, ama-hizkuntza aberatsa izateari garrantzia handia ematen diote, eta jatorrizko

hizkuntza aberasteko errefortzuren bat behar badute, eman egiten diete. Suomiera edota suediera ez den beste ama-hizkuntza batekin datozen haurrek ere aukera dute euren ama-hizkuntzan eskolatzekoa, eta gerora finlandiera ikastekoa.

- Berrikuntza pedagogikoa: curriculum berrian, besteak beste, hobetsi zuten PBL (Phenomenon Based Learning)-ean oinarrituko zirela eskoletan, alegia, gai globaletan zentratuz, edota beste era batera esanda, proiektuka lan egingo zutela. Erabaki hori komunikabide ugariara heldu zen eta titular potoloak eragin zituen. Bazirudien aurrerantzean Finlandian irakasgaiak gabe lan egingo zutela, libururik gabe, adin desberdinetako haurrek nahasian, eta etxerako lanik nahiz azterketarik ez zutela izango. Baina ez da hori errealitatea. Ildo horretan dihardute lanean, hainbat irakasle edota zentro hasiak dira norabide horretan aldaketak txertatzen, baina neurri horretako eraldaketak egiteak denbora eskatzen du, formazioa, esperimentatzea, dokumentatzea eta praktikan jarritakoa ebaluatzea. Mantso baina bide horretan doaz. Jabetuak dira, gainera, eskolaz kanpoko bizitzatik eskolatik adina edo gehiago ikasten dutela haurrek, eta, beraz, eskolaz kanpoko jardunetik eskolara eramateko jarraibideak har ditzaketela. Finlandian haurrek eta gazteek ordu asko ematen dituzte helduen presentziarik gabe euren artean jolasean, hizketan edo ekinean, eta elkarrengandik ikasten dute. Hortaz, erronka berria zera da: nola egin ikasketak modu hori eskolara eramateko? Konturatu dira ikasleak gelaka eta adinaren arabera sailkatuta edukitzea baino hobe dela denak batera interakzioan aritzea, eta proiektuka jarduteak horretarako aukera emango liekeela. Horra hor, aurrera begirako erronkak.

- Komunitatea hurrei begira: ikastetxeen bueltan eguneroko ekintza asko egiten dituzte familiek Finlandian, ohiko eskola orduz gain, astialdiko jardueretariko batzuk ere bertan antolatzen dituztelako, baita familien bestelako zenbait elkarretaratze eta ekitaldi ere. Baina horrez gain, familientzako beste bi eremu ere oso inportanteak dira suomien artean: liburutegiak batetik; eta haur zein familientzako gizarte-zentroak bestetik. Finlandiarrek asko irakurtzen dute eta auzo zein herri guztietan daude liburutegiak, egun osoz eta asteko zazpi egunetan irekiak. Leku biziak dira. Mailegu-sistema oparora emateaz gainera, liburu irakurraldiak, haurrentzako tailerrak, antzerki ikuskizunak, euren kasa lanean hasi berri diren gazteentzat espazio eta baliabideak... eskaintzen dituzte. Azken batean, liburutegiak kultur etxe modukoak direla esan daiteke. Bestetik, berriz, haurrak eurak bakarrik edota familian joateko gizarte-etxeak ere badituzte. Helsinkin 66 daude, orotara. Guztiak natur-espazio baten daude eraikita, eta bertan barruko zein kanpoko jolaserako, irakurketarako eta lasai egoteko espazioak dituzte, baita sukaldea ere.



“Pedagogiaren arloan autonomia handiagoa behar dute zentroek; planteamendu irekiagoak egiteko aukera eman behar zaie ikastetxeei”

ELKARRIZKETA: GONZALO LARRUZEA

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZAKO IKUSKARIA

“Didaktika eta Antolaketa Eskolan” arloan doktorea da, eta “Eskola Zentroen Zuzendaritza eta Gestioa” izeneko masterra egina du Gonzalo Larruzeak (Bilbao, 1955). Uneotan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako ikuskaria da, baina urte asko daramatza hezkuntza arloan lanean: irakasle, zuzendari, sindikalista, aholkulari, arduradun politiko... bi liburu idatzi ditu: tesian

oinarritua lehena –*La autonomía de los centros escolares. Análisis y propuestas en clave de servicio público y equidad*–; eta *La dialéctica público-privado en la educación vasca* izeneko bigarrena. Euskal eskolek autonomia handiagoa behar dutela defendatzen du, baina ez lehiakortasuna bultzatzeko, baizik eta eskola-komunitatea ahaldunduz eskola-proiektu sendoak sortzeko.

Irakasle, sindikalista, zuzendari, hezkuntza-aholkulari... lanetan ibilia zara, eta une honetan Eusko Jaurlaritzako ikuskaria zara. Hezkuntza-ren munduan egin duzun ibilbide luze-zabal horrek eman diezazukeen ikuspegiarekin, euskal hezkuntza-ren zer-nolako erradiografia egingo zenuke?

Nik pentsatzen dut orokorrean sistema on bat daukagula, baina era berean iruditzen zait hobekuntzarako esparruak ere zabalak direla. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako kasuan, esango nuke, beste erkidego batzuekin alderatuta, diru asko inbertitzen dela hezkuntzan, baina hala ere, eraginkortasuna kolokan dagoela. Ez dakit neurtzen ote dugun diru hori benetan zertan gastatzen den. Esango nuke konfort gune batean mugitzen garela eta hezkuntzaren arloa astintzeko beharra daukagula. Erosotasun egoera horretatik atera behar dugu.

Onartu behar da hezkuntzan egiten den inbertsio horrek zenbait adierazle on uzten dituela, adibidez, eskola abandonuari dagokionez Europa mailan ondo kokatuta gaude, eta 2020rako Europako markoan lortu beharreko beste hainbat helburu ere beteak ditugu. Esate baterako, Batxilergoa gainditu beharreko ikasleen kopurua edota Unibertsitatean heltzen diren ikasleena.

Baina PISAren azken emaitzekin alarma piztu da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Hala da, bai. Eta ezin dugu beste aldera begiratu, baina datu horiei nik garrantzi handiegirik ere ez nieke emango. Izan ere, iruditzen zait orain mundu guztia aztoratuta dabilela hemendik hiru urtera gure irudia zelangoa izango ote den hausnartuz. Baina niri hori oso planteamendu urria iruditzen zait. Kontuan izan behar dugu PISAk kompetentzia batzuk neurtzen dituela, baina ez guztiak. Beraz, proba horrek ateratzen duen argazkiak ez du hezkuntza-sistema guztia bere osotasunean erakusten. Hori alde batetik; bestetik, berriz, PISAk adierazi diguna ez da hain berria ere izan. Orain arte bost ediziotan egin da ebaluazio-diagnostikoa, eta argi ikusi dugu bilakaera zein izan den: ez dugu hobekuntzarik egin. Beraz, PISAk adierazi duena aurretik ere bagenekien.

Horregatik diot geldialdi edo eten puntu batean gaudela, konfort egoera batean eta astintze bat behar dugula. Behin eta berriz esan diogu geure buruari ondo goazela, Europatik eskatzen diren hainbat eta hainbat adierazle bete ditugulako —ez denak, baina bai gehienak—, baina uste dut guztiok ohartuta gaudela, zenbait

irizpide bete arren, bikaintasunari dagokionez herren gaudela. Nahikoa begi-bistakoa da gastatzen dugun dirurako askoz ere emaitza hobekak lortu behar genituzkeela.

Horrekin batera, esango nuke, badugula beste arazo bat ere: hezkuntza-sisteman daukagun dualtasuna, alegia, eskola publikoen eta itunpekoen artean dagoen bikoiztasuna. Sistema horrek eragin handia dauka gure hezkuntzan. Kontua ez da soilik ekintza hezitzailea ekoizteko modua ezberdina dela, alegia, modu batean ekoizten dela publikoan eta beste modu batean itunpekoetan, baizik eta bikoizketa edo dualtasun hori gizarte mailan islatzen dela. Horrek segregazio efektu bat izan dezake, eta hezkuntzaren ikuspuntutik, guk hori gainditu egin beharko genuke.

Non hobetua badaukagula diozu. Zein erronka nagusi ditu zure ustez gure hezkuntza-sistemak, eta zer egin daiteke gaur egungo errealitateari buelta emateko? Edota gutxienez, hainbat arlo hobetzeko?

Erronka batzuk baditugu, bai. Horietako batzuek agian eskola publikoarekin lotura handiagoa izango dute, eta beste batzuek itunpeko ikastetxeekin. Maila orokorrean mahai gainean jarri beharreko gaiak ere



badaude. Izan ere orain eskola-hitzarmenari buruz hitz egiten da, hori izango delako Hezkuntza Legearen aurretiko urratsa eta hori gabe Legea ez garelako iritsiko. Zentzu horretan, lehenik mahai gainean jarri behar duguna finantziazioaren gaia da. Gardentasunez azaldu behar dugu nola finantzatzen dugun, zertan gatatzen dugun dirua, zein eraginkortasunekin, nortzuei eman behar zaien diru publikoa, nortzuei agian ez... Hortaz, finantziazioa funtsezko gaia da.

Eta finantziazioarekin batera, ebatzi edo konpondu behar den beste gai bat da doakotasuna. Dena batera doa. Zeren nolabait horrek segregazioa sor dezake. Batetik, itunpekoek esaten dute diru publikoarekin ez zaiela dituzten gastu guztietarako ailegatzeko, eta beraz, beharrezkoa dela beste iturri batzuetatik dirua ateratzea, alegia, familien poltsikoetatik. Bestetik, berriz, administrazioarentzat ere merkeagoa ateratzen da azpikontratatzeko. Alegia, hezkuntza-sistema osoa diru publikotik finantzatu beharko balitz administrazioari edo herritarroi askoz ere garestiago aterako litzaiguke.

Beraz, dualtasunarekin jarraitzeko, batetik Gobernuaren interesa egon daiteke, horrela merkeago ateratzen zaiolako. Baina, bestetik, jendeari ere ez zaio inporta gehiago ordaintzea, trukean euren seme-alabak eurek aukeratutako ikaskideekin egotea lortzen badute. Izan ere, itunpeko ikastetxe bat aukeratzeko arrazoi nagusia maila soziala da eta ez horrenbeste pedagogikoa. Beraz, gure hezkuntza-sistema planteatuta dagoen moduan, bi besoko sistema sortzen da, baina bi beso horiek ez dira parekoak sozialki.

**Doakotasuna, dualtasuna gainditzea...
erronka handiak dira. Nola bideratu
daiteke norabide horretan joan-
go den prozesu bat? Lehen aipatu
dituzun eskola-hitzarmenak edota
hezkuntza lege berri batek bidea
urratu ahalko luke?**

Ikusi beharko litzateke hori dena nola bideratzen den, baina jada 1993ko legean idatzita dago. Horretarako ez da behar beste lege berri bat. Kontua da, orain indarrean daukagun legea

ez dela betetzen. Lege hori bete izan balitz, momentu honetan beste egoera batean egongo ginatke, zeharo desberdina. Eta horrekin ez dut esan nahi indarrean daukagun legearen bestelako garapen batzuk behar ez ditugunik, baina esan nahi dudana da orain legeak dioena beteko balitz asko aurreratuko genukeela. Kontua da, ordea, normalean, legeak ez direla betetzen.

Konparazioa eginez, Europar eskola publikoa hemen baino askoz ere garatuago dago. Zergatik? Estatuak diru gehiago izan dutelako, eta XIX. eta XX. mendeetan hezkuntza publikorako proiektu bat eraiki dutelako. Eta hori gurean ez da gertatu.

Aldaketarako kontuan izan beharreko beste elementu bat berrikuntza pedagogikoa litzateke; esango nuke sistema jada horretan hasia dela. Daukagun eskola XX. mendean geratu da, baina gaur egun bizi dugun errealitateari erantzuteko beste sistema bat behar dugu. Inertzia batzuk gainditu behar ditugu, eta funtzionariotza eraldatzeko premia ere badaukagu, bestela tranpa batean harrapatuta bezala egongo gara. Ezin gara orain daukagun irakasgaikako planteamenduaren zordun izan. Badirudi irakasle bakoitza ikasgai bati erantzuten dion plaza baten jabe dela, eta horrek jakinduria, ezagutza zatikatzea dakar, erabat konpartimentatutako sistema bat daukagu, eta hori gainditu egin behar genuke, hobetu nahi badugu.

Horrekin batera iruditzen zait hezkuntzaren helburuak zeintzuk diren ere aztertu behar genukeela. Momentu honetan egia da ohartuta gaudela beste metodologia batzuk erabili behar ditugula, duda barik, baina igual obsesionatuta gaude horrekin eta akaso hori bezain inportantea da argi izatea hezkuntzaren xedeak zeintzuk izan behar duten. Zertarako berrikuntza pedagogikoa? Izan ere, berrikuntza horiek eredu sozial bat bultzatzeko ere balio dezakete: kapitalismoaren eta produkzioaren ereduak. Kapitalismoak, fase honetan exijitzen duena da ekipoan lan egitea, ekintzailatza, malgutasuna... hain zuzen ere, momentu honetan balio horiek dituzten langileak behar ditue-

“Iruditzen zait, hezkuntzan konfort gune batean mugitzen garela eta hezkuntzaren arloa astindu beharra daukagula. Erosotasun egoera horretatik atera behar dugu”

“Euskal Eskola Publikoan autonomia ez da garatu eta denak eredu zentralizatu baten arabera funtzionatzen du. Kontua da, ordea, autonomia ez dela garatzen soilik lege bat eginez, autonomia prozesu bat da, eta prozesu horretan aldaketa asko egin behar dira”

“Autonomiak, batez ere, hezkuntza-proiektu bat edukitzea esan nahi du, denon artean eraikitako hezkuntza-proiektu bat.”



lako. Beraz, sistemak egoera horretara egokitzen diren ikasleak prestatzen ditu. Eta, egia da, taldean lan egiteko gaitasuna, ekintzailtza edota malgutasuna oso balio onak izan daitezkeela, baina oso garbi izan behar dugu balio horiek zertarako bultzatu nahi ditugun, zein gizarte mota eraiki nahi dugun, eta hori normalean ez da planteatzen, planteamenduak soilik modu teknokratiko batean egiten dira, alegia, merkatutik datozkigun errorrak kontuan hartuta.

Eta bukatzeko, eskola publikoari dagokionez, esango nuke proiektu bat behar duela. Ez dago proiekturik eskola publikorako. Era berean, uste dut eskola publikoak onartu behar dituela ebaluatzeko tresna batzuk. Ez dago kontrol handirik. Ez dira neurtzen emaitzak, ez da neurtzen eraginkortasuna... Ez dago gizarte kontrolik. Eta ez naiz hori esaten ari lehiakortasunaren izenean, baina bai gizarteak diru bat ematen duelako eta gizarte horrek jakin behar duelako diru hori zertan eta zelan gastatzen den, eta zein eraginkortasunekin. Momentu honetan Kristau Eskolak badu bere “enpresa” proiektua, Ikastolek ere bai, baina eskola publikoak ez dauka ez aitarik

ez amarik... ez dauka proiekturik administrazioaren aldetik. Soilik dirua ematen zaio, baina noraezean edo norabiderik gabe mugitzen da. Egia da gauza on asko egiten direla, baina gehienetan ekimen indibidualak izaten dira, ez proiektu globalak.

Dualtasuna aipatu duzu, Ikastolen Elkartek eta Kristau Eskolek proiektua badutela diozu, baina Eskola Publikoak ezetz... Baina, denak administraziopekoak izango balira, ez ote legoke arriskua denak noraez horretan geratzekoa, autonomia gabe, proiektu gabe, identitate gabe... Hortik abiatuta, ze inportantzi dauka zentroyen autonomiak? Eta autonomiarekin lotuta zentro bakoitzaren hezkuntza-proiektuak berak zer garrantzi hartzen du?

Autonomia da oztoporako langa, zio honen guztiaren gakoa. Eta, noski, lehen aipatu ditudan erronkekin batera, zentroyen autonomia litzateke, hurrengo erronka nagusia. 1980an hiru sare zeuden: batetik, nazionalak edo estatukoak; bestetik, ikastolak –eta segur aski orduko Eusko Jaurlaritzak pentsatuko zuen horiek izan behar zutela Euskal Eskola Pu-

blikoa sortzeko oinarri–; eta azkenik, erlijiosoak –hasieran subentzionatuta zeudenak eta gero kontzertatu bihurtu zirenak–.

Hamar urte baino gehiago pasa ziren –93ko Euskal Eskola Publikoaren Legea argitaratu arte–, jakin barik nola integratu edo nola ordenatu sistema. Baina lege hark ere ez zuen asebetetze handirik lortu oposizioan. Zergatik? Bada, hain zuzen ere, inork ez zuelako sinesten publikoa izanda zentroyek autonomia izango zutenik. Hau da, guztiek pentsatzen zuten euren proiektua urtu egingo zela titulartasuna estatuari pasaz. Hori saihesteko 93ko Euskal Eskola Publikoaren Legearen zati handiena, erdia baino gehiago hain zuzen –V. kapitulu osoa–, autonomiari buruzkoa izatea erabaki zuten. Titulartasuna estatuarena izan arren, eskola-eredu malgu bat planteatu nahi izan zuten, non guztiek euren eskola-komunitatetik abiatuta, sortu ahalko zuten euren eskola-proiektua. Legea horrela planteatu zen beldurra kentzeko, baina ikastola gehienek, behintzat ekonomikoki itota ez zeudenek, erabaki zuten horretan ez sartzea, pentsatzen zutelako euren izaera galduko zutela

eta euren proiektua diluituta geratuko zela. Eta, neurri handi batean, atzera begiratuta, esan beharra dago arrazoi zutela.

20 urte baino gehiago igaro dira lege hura onartu zenetik, eta oraindik Euskal Eskola Publikoan autonomia ez da garatu eta denak eredu zentralizatu baten arabera funtzionatzen du. Egia da, transferentzia batzuk egin direla estatutik erkidegoetara, alegia, Madrildik Eusko Jaurlaritzara, baina gero erkidegoek, gehienetan, eta gureak barne, beste eredu zentralizatu bat sortu dute.

Kontua da, ordea, autonomia ez dela garatzen soilik lege bat eginez, autonomia prozesu bat da, berreraikitze instituzionalaren prozesu bat. Eta prozesu horretan aldaketa asko egin behar dira.

Autonomia kontzeptua darabilzuenan, zertaz ari zara zehazki? Zehaztu dezakezu zuk nola ulertzen duzun kontzeptu hori?

Autonomia da zentroak duen ahalmena bere hezkuntza-proiektua definitzeko, horretarako beharrezko dituen baliabideak eskuratuz eta prozesuak garatuz, eta hori guztia definitzeko duen eskubidea modu demokratiko batean, hau da, modu parte-hartzaile batean, eta xede izanik eskola komunitatearen zerbitzura egotea, eta batez ere, ikasleen zerbitzura, haien onurari eta ongizateari begiratzeko.

Eta ez nuke nahi inork kalitate-sistema batekin nahasterik. Autonomiak, batez ere hezkuntza-proiektu bat edukitzea esan nahi du, denon artean eraikitako hezkuntza-proiektu bat. Eta proiektu bat edukitzea amets bat bezala ulertu behar da. Etorkizunera begira utopia txikitxo bat edukitzea ikastetxeetarako, gure singularitasunari erantzungo diona eta zentzu komunitarioa izango duena. Autonomiaren definizio horretan elementurik garrantzitsuenetarikoa bat komunitatea da. Baina, zer gertatzen da? Horretarako kontuan izan behar dugula gaur egun gizarte mailan oso atzeratua dagoen elementu bat: parte-hartzea, hain zuzen.

Nola jarri ahalko lirateke zuk aipatzen dituzun autonomia-prozesu

horiek martxan?

Nire beldurra da orain marko bat sortu eta esatea “apuntatu dadila nahi duena”, horrek disgregazioa handituko lukeelako eta bikoiztasun hori biderkatuko litzatekeelako. Izan ere, ikastetxe batzuk prestatuago daude autonomia-prozesu bati ekiteko beste batzuk baino. Beraz, nik uste dut administrazioak nahiz ikuskaritzak lagundu, bultzatu eta ahalbidetu egin behar luketeela autonomia prozesu hori. Baina prozesu soziala den heinean ez du zentzurik pentsatzeak kasu guztietan bultzada edo laguntza horrek berbera izan behar duenik. Hasieran, agian, ez dute guztiek zertan izan autonomia-maila berbera. Kontua da ikustea ea heldutasuna dagoen agian ziklo batean edo asig-natura batean edo hizkuntza proiektu batean autonomia edukitzeko... akaso arlo batean autonomia izan dezakete zentro batzuek arlo horretan garatuago daudelako, eta beste zentro batzuek akaso beste eremu batean.

Autonomiak, era berean, suposatuko luke nolabaiteko kontratu bat egitea administrazioarekin. Ikastetxe batek edo irakasle-talde batek planteatu dezake iritsi nahi duela ez dakit zein helburutara, eta, gainera, elementu neurgarri batzuk izango dituztela gero ebaluatu ahal direnak. Trukean administrazioak behar diren baliabideak jarri beharko lituzke, eta hori guztia lehen aipatu dudak kontratu moduko horretan zehaztuko litzateke. Zergatik hori? Autonomia politika bat egitea eta autonomia prozesuak martxan jartzea orain daukagun sistema baino garestiagoa izango litzatekeelako. Autonomia politikek baliabideak exijituko lituzkete eta baliabideek inbertsioak.

Batetik ikastetxetik etorritako proposamenen harira joan beharko litzateke zentroen autonomia garatzen, baina administrazioak ere bultzatu eta sustatu behar lituzke autonomia-proiektu horiek. Negoziatu egin beharko litzateke zein baliabide behar diren eta horren arabera markatu neurgarriak diren helburu batzuk, gero ebaluatuko direnak.

Eta nola egikaritzen da autonomia hori sare ezberdinetan?

“Gizarteak bere hezkuntza-sistema autogestionatu egin behar du, gizartea ahaldundu egin behar da eskola-komunitateetan bakoitzak bere proiektu propio eta singularra aurrera eraman dezan, nork bere hezkuntza-proiektuak definitzeko eta erabakitzeke nola garatuko dituen”

“Ez bada parte-hartzean sakontzeko, komunitarismoan, demokrazian, gizartearen ahalduntzean, bada, beste gauza batez ari gara hitz egiten, eta ez autonomiaz. Nik defendatzen dudak autonomia mota, ‘autonomia komunitarioa’ deiturikoa litzateke”



Europa-mailan ikusten da euskal itunpeko ikastetxeek Europako batez besteko maila baino altuagoa dutela. Aldiz, publikoak azpitik daude. Nik, ordea, ez dut uste eredu pribatu batekin konformatu behar dugunik, baina ezta eredu estatal batekin ere. Iruditzen zait merkatuaren eta estatuaren artean erdibide bat bilatu beharrean gaudela, eta nire ustez erdibide hori gizartean dago. Hau da, gizarteak nolabait bere hezkuntza-sistema autogestionatu egin behar du, gizartea ahaldundu egin behar da eskola-komunitateetan bakoitzak bere proiektu propio eta singularra aurrera eraman dezan, nor bere

hezkuntza-proiektua definitzeko eta erabakitzeko nola garatuko dituen, zein baliabiderekin, zein prozesuren bidez... Zerbait bizia eta dinamikoa izango litzateke. Finean, UNESCOk ematen duen definizioarekin bat egiten dut: hezkuntza guztion ondasun bat da, alegia, ongizate komuneko zerbait da, eta noski, hori ez da posible parte-hartzerik gabe.

Alde batetik zein bestetik egiten da zentroen autonomiaren defentsa. Eredu berberaren defentsan ari al zarete guztiok?

Autonomian bi eredu ditugu, nagusiki. Beno, eta hirugarren bat ere izan

dezakegu. Eredu horietako bat neoliberala da. Kontuan hartuta estatuak gero eta diru gutxiago duela, murrizketak daudela, administrazioa ahalagoa dela... estatuak nahi duena da erantzukizunak banatzea eta ardurak erkidegoen gain, eta batez ere ikastetxeen gain uztea. Hortaz, estrategia da hezkuntza-sistema eraginkorragoa egiteko autonomia bultzatzea. Hori litzateke autonomiaren ikuspuntu merkantilista, hala ikastetxeen artean lehia sortuko bailitzateke, gero gurasoek aukera ditzaten emaitza onenak eskaintzen dituzten ikastetxeak. Eta esango nuke Eusko Jaurlaritzaren autonomia politika batez ere eredu honetan oinarritzen dela.

Nik defendatuko nukeen autonomia politikak, ordea, askoz ere zentzu demokratiko handiagoa dauka, gizartea ahal bezainbat ahalduntzeko eta proiektua herrikoia egiteko. Autonomia hasieran ezkerreko bandera bat izan da, baina gero merkatuak eta eskuinak berea egin du, eta orain guztiok ari gara hitz egiten gauza beraz. Baina planteatu behar duguna da autonomia zertarako eta zein erdutako autonomia. Ez bada parte-hartzean sakontzeko, komunitarismoan, demokrazian, gizartearen ahalduntzean, bada, beste gauza batez ari gara hitz egiten, eta ez autonomiaz. Nik defendatzen dudana autonomia mota hau autonomia komunitarioa deiturikoa litzateke.

Hirugarren eredu bat existitzen ez dena, baina sor litekeena da autonomia korporatibista. Horrek esan nahiko luke autonomia irakasleen, eta batez ere, zuzendaritzen eskuetan geratzen dela, eta eurak autonomia hori interes korporatibistetarako darabiltela. Adibide bat izan daiteke, irakasle guztiek jardunaldi trinkoa egin nahi izatea eta horren alde egitea pentsatu gabe nori egiten dion horrek mesede eta nori kalte: “Behe mailako ikasleei jardunaldi trinkoak mesede egiten die edo kontrakoa gertatzen da?” Baliteke irakasleek euren interesetan oinarritutako erabaki bat hartzea, baina erabaki hori ez izatea guztien interesekoa.

Gai konplikatu da, eta badakit nik defendatzen dudana eruditik oso urrun gaudela momentuz, baina

diodan bezala, autonomia prozesu bat izan behar da. Giner de los Rios-ek zioen moduan, inportanteena ez da hezkuntza-askatasunean oinarriturik pluraltasun bat sortzea dozenaka proiektu pribaturekin, hala gizarte batek duen aberastasuna ezagutzera emateko. Egin beharko genukeena da ikastetxe publikoak, baina anitzak sortu, aberastasuna kudeatu ikastetxe publikoaren barruan, ikastetxe bakoitzak bere singularitasuna gara dezan. Horretarako, komunitate aberatsak eta parte-hartzaileak behar ditugu, eta askatasuna behar dugu. Gertatzen dena da, normalki, administrazioarentzat erosoagoa dela dena arautzea.

Tesian diozunez, zentroen autonomiari dagokionez ere hainbat arlo egon daitezke. Horietako batzuetan, -arlo pedagogiko eta curricularrean kasu-, autonomia handiagoa dute zentroek; gestio finantzarioari eta antolaketari dagokionez gutxiago; eta profesionalen kudeaketari dagokionez batere autonomiarik ez.

Gaur egun zentro publikoetako zulo beltza langileriaren kudeaketa da. Normalean esleipenak egiten dira antzinatasunaren arabera, alegia, funtzionarioen eskubideen arabera eta ez eskola-komunitatearen proiektuaren arabera. 93ko Euskal Eskola Publikoaren Legean garbi esaten da zentro bakoitzeko pertsonala hautatuko dela eskola-komunitateak zehazten dituen profilei jarraituz. Hala eskola funtzionariotzaren esanetara egon ez dadin, baizik eta alderantziz, funtzionarioak egon daitezten eskola-komunitatearen proiektuaren esanetara. Legeak 61. artikuluan honela dio: “Herri-ikastetxearen organo gorenak ikastetxeko langileen zerrenda diseinatuko du, beti ere ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren, hezkuntza-administrazioak finkatutako gutxienekoekin eta aurrekontuko baliabide erabilgarriekin bat etorriz”. Eta hurrengo paragrafoan zera esaten du: “Organo gorenak langile-zerrenda diseinatuko du”. Horregatik diot legedia beteko bagenu, beste egoera batean egongo ginatekeela.

Eta arlo pedagogikoan?

Pedagogiari dagokionez, askotan esan ohi dugu ikastetxeak baduela aukera nahi duen hori egiteko, eta neurri handi batean hori hala da, baina ez autonomia curricularra dutelako, baizik eta inor enteratzen ez delako, hau da, kontrolik ez dagoelako. Beraz, posibilitate hori existitzen da. Inor ez da ari atzetik ikastetxe bakoitzean zer gertatzen den behaka. Baina jakin nahiko nuke zer gertatuko litzatekeen, adibidez, ikastetxe batek planteatuko balu curriculum dekretutik kanpo beste era batean antolatuko duela ordutegia eta ikasgaiategia: esate baterako, denbora gehiago dedikatuko diela hizkuntzei eleaniztasun proiektu indartsu bat egin nahi duelako, edota IKTak lantzen ordu gehiago sartuko dituela, bere hezkuntza-proiektuan lehentasuna horri ematea erabaki duelako, edota zentro batek esango balu asignaturen sistema apurtu nahi duela. Izan ere, momentu honetan, hezkuntzan zein premia ditugu? Curriculuma apurtzeko premia daukagu, ordutegia apurtzekoa, gelak eta hormak puskatzekoa, beste askatasun batekin lan egitekoa... Gaur egungo arautegiarekin posible da hori egitea? Akaso inor enteratzen ez bada bai, baina legeari dagokionez ikastetxeek ez daukate autonomiarik pedagogikoki horrelako ezer egiteko. Beraz, egia da bakoitzak bere gelan nahi duena egiteko askatasuna duela, eta ikastetxe batean gauza asko egin ditzaketela inor konturatu gabe, baina jada ur sakonagoetan sartzen bagara, legeak ez du onartzen. Hortaz, argi dago pedagogiaren arloan autonomia handiagoa behar dutela zentroek eta planteamendu irekiagoak eta gardengoak egiteko aukera eman behar zaiela ikastetxeei.

Hezkuntza Legea egiten bada, era horretako aldaketak txertatzeko aukera ireki daiteke?

Ez dakigu. Nik zaratak entzuten ditut eta zarata horien arabera pentsa dezaket bakoitza bere posizioa ari dela hartzen. Pentsatzen dut bai Ikastolak, bai Kristau Eskolak jada posizioak hartzen ari direla eta euren hausnarketak eta definitzen ariko direla eta euren eskaerak zeintzuk izango diren

“Ikastetxe anitzak, baina publikoak sortu behar genituzke, aberastasuna kudeatu ikastetxe publikoaren barruan, ikastetxe bakoitzak bere singularitasuna gara dezan. Horretarako komunitate aberatsak eta parte-hartzaileak behar ditugu, eta askatasuna behar dugu”

zehazten. Oso momentu interesgarria da, 2000. urtetik hona apenas mugitu delako ezer. Pentsatzen dut lidergoa eraman beharko lukeela Hezkuntza Sailak, baina ez zait iruditzen datorren ikasturtera arte ezertan hasiko direnik. Hezkuntzari astindu bat emateko une klabea izan daiteke hau. Gauzak mugitzeko Hezkuntza Sailean burua duen jendea behar da, ikuspegi globala duena eta politikoki ausarta izan nahi duena...

Aurrerapausoak egiteko unea da, bai erreformak egiteko eskola publikoan eta publikoa itunpekoago bilatzeko batetik, eta itunpekoak publikoago egiteko bestetik. Momentu honetan ez dut posizionatu nahi titulartasunaren alde edo kontra, baina bai esan dezaket, nire ustez titulartasuna ez dela bigarren mailako kontua. Eta harago joanez, nire ustez jabetasuna adierazteko formula berriak bilatu beharko genituzke. Orain arte dena izan da edo estatal edo pribatua. Baina ezin dugu bilatu beste era bateko jabetasun konpartitu bat? Hau da, agian juridikoki orain arteko eskemetatik ateratzeko pausoak eman beharko genituzke.

EKARPENAK

GIZARTE ZIENTZIAK INGELESEZ

‘Eleanitz’ proiektuaren ikerketarako ikuspegi teorikoa

Ikasleak eleaniztasunean hezteko plan eta proiektu ugari jarri ditu abian gure gizarteko hezkuntza-sistemak. 25 urte pasatu dira jada hainbat proiektu ezarri zirenetik, eta garatzen ari dira gaur egun ere. Horrek guztiak argi erakusten digu, etorkizuneko gizartean bizi, lan egin eta mugitu beharko duten gaur egungo ikasleek gizarteratze-prozesuan arrakasta lortzeko aukera handiagoak izango dituztela, eleaniztunak diren heinean.

Baina bermatua dago eleaniztasuna, *Eleanitz* proiektuarekin edota antzeko beste hezkuntza-egitasmo batzuekin? Zergatik aukeratu da Gizarte Zientziak irakasgaia, eta ez beste bat, ingelesez emateko? Zer ondorio eduki ditzake edukiak barneratzeari begira Gizarte Zientziak ingelesez ikasteak? Eta eleaniztuntzat hartzen ditugun ikasle horiek gai dira hizkuntza batean ikasten dituzten edukiak beste hizkuntza batean adierazteko? Zer nolako eragina dute ikasleen ama-hizkuntzak eta etxean erabiltzen den hizkuntzak edukiak hizkuntza batean edo bestean adierazteko gaitasunean?

Orain dela hamahiru urte, 2001-2002 ikasturtean alegia, DBHko 3. mailako gure ikastaldea izan zen gure ikastolan Gizarte Zientziak irakasgaia lehendabiziko aldiz ingelesez eman



Nagore Vesga Bujan


EHUko Bigarren Hezkuntza irakasleen preprestakuntzarako masterreko ikaslea

zuena, *Eleanitz* proiektuaren hastapenetan, hain zuen, eta horixe izan da ikerlan hau egitera bultzatu nauen oinarritzko motibazioa. Proiektuko lehenengo belaunaldia izatea gertaera gogoangarria izan zen niretzat, eta esango nuke gertaera huraxe izan zela gaur egun hizkuntzetarako dudan zaletasunaren arrazoietako bat.

Horregatik, ikerketa honen bidez, zera ikusi nahi nuke: proiektua abian jarri zenetik hamar urte baino gehiago pasatu ondoren, ea proiektua abian jartzeko unean zeuden arrazoiek gaur egun berdin jarraitzen duten, eta ea proiektuaren bidez erdietsi nahi zena lortzen ari diren. Zehazki:

- Irakasgai bat ingelesez ikasteak eragin negatiboa du edukietan? Hau da, ikasleek eduki apalagoak barneratzen dituzte?
- Ingeles maila hobetzen dute ikasleek horrela?
- Gai dira ikasleak kontzeptuak beste hizkuntza batean adierazteko?

Ikerketa hau egiteko eta burura datozkidan galderei erantzuna emateko asmoz, egungo egoera azaltzen saiatuko naiz lehenengo, gaiaren inguruan irakurritakoaren laguntzarekin, eta esparru teorikoa finkatzen ahaleginduko naiz.



Matrikulazioari buruzko datuak. Iturria: Euskadiko Eskola Kontseilua (2004-2005 ikasturtea).

Gaiaren egungo egoera eta oinarri teorikoak

Globalizazioaren mende honetan, bere hizkuntza propioa bultzatu eta gorde nahi duen euskal gizartean, ezinbesteko gertatzen da ama-hizkuntza hau Espainiako edota Frantziako estatu mailako hizkuntzekin batera ikastea, gure kulturaren parte den bereizgarri hori galduko baitugu bestela. Hala ere, eleaniztasunean bizitzeko gai izan behar dugu euskal biztanleok, gero eta globalagoa den mundu honetako gizartean mugitzeko eta gizarte horretan parte hartu ahal izateko. Eleaniztasuna pil-pilean dagoen gaia dugu, eta berebiziko garrantzia hartzen ari da gizarteko alor gehienetan.

Hezkuntza-esparruari dagokionez, argi dago gizarteko aldaketa sakonei erantzun behar diela hezkuntzak, hezkuntzaren funtsezko helburua baita ikasleei gizarteratze-prozesuan laguntzea. Horregatik, azken hamarkadetan eleaniztasuna garatzeko ikastetxeek abian jarritako prozesuak ez dira aldaketa horien beste adibide bat besterik.

Eleaniztasunaren inguruan sakonago aritu aurretik, argi adierazi behar da Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntzen trataerak bilakaera bat izan duela hezkuntzan. Lasagabasterrek

azaltzen duenaren ildotik, euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasuna ezarri zuen 1979ko Autonomia Estatuak Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, horrekin batera, unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan hizkuntzen erabilera arautzeko balio izan zuen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarriko Legeak, Euskararen Erabilera Arautzen duenak. Halaber, gaur egun oraindik euskal hezkuntza-sisteman ezagunak diren hiru hizkuntza-ereduen oinarriak ezarri zituen lege horrek (Lasagabaster, 1998):

- **A erredua:** gaztelaniaz irakasten dira irakasgai guztiak, gaztelania baita ikasleen ama-hizkuntza. Euskarari bost ordu eskaintzen zaizkio astean, eta hiru, berriz, ingelesari (biok irakasgaiak dira, eta ez komunikazio-hizkuntzak).
- **B erredua:** erdara eta euskara dira lingua franca (bietan irakasten dira edukiak), ikasle gehienek ama-hizkuntza erdara bada ere. Ingelesari hiru ordu eskaintzen zaizkio astean.
- **D erredua:** euskara da lingua franca eredu horretan. Gaztelaniaz, bost ordu ematen dira astean, eta ingelesez, berriz, hiru. Ikasleen ama-hizkuntza euskara da oro har, nahiz eta ama-hizkuntza gaztelania edo bi

hizkuntzak dituzten ikasleak ere egon daitezkeen.

Ikusten denez, ingelesari hiru ordu besterik ez zaio eskaintzen kasu horietan guztietan. Bestalde, hizkuntza-eredu horiek egungo hezkuntza-sisteman jarraitzen badute ere, Euskadiko Eskola Kontseiluak 2004-2005 ikasturtean egindako datu-bilketari jarraiki, gero eta guraso gehiagok matrikulatzen dituzte seme-alabak D ereduan (% 62,8 EAEn, 2004-2005 ikasturtean), 90eko hamarkadan gertatzen zenarekin alderatuta (% 41,8 D ereduan, eta % 58,2 A ereduan). Horixe ikus daiteke goiko grafikoen.

Ondorio argi bat atera dezakegu hortik: euskal gizartea elebakartasunetik elebitasunera doa, hezkuntza-sistemari dagokionez behintzat; eta, gizarte elebiduna izanda, eleaniztasunaren bidean jartzea izan da bai gobernuak eta bai hezkuntza-sistema osoak hartutako erabakia.

Hala ere, inguruak baldintza batzuk eskaini behar ditu eleaniztasuna sustatzeko, hainbat ikertzailek diotenaren arabera. Cenoz-en (2000) aburuz, adibidez, gure gizarteko ikasleek eskolan lortutako ingeles maila baxua izan da betidanik. Haren ustez, hauek izan daitezke horren arrazoiak, besteak beste:

- Euskal Hezkuntza Sistemak tra-

EKARPENAK: GIZARTE ZIENTZIAK INGELESEZ

- dizio txikia du ingelesa irakasten.
- Gure komunitateko hizkuntzek distantzia tipologiko handia dute ingelesarekiko, jatorri germanikoko beste komunitate batzuetako hainbat hizkuntzekin alderatuta (alemana, holandesa eta daniera, adibidez).
- Telebistan eta beste hainbat hedabideetan, bikoizketak egiten dira.

Gainera, Cenozek dioenez, bi modu ezagutu izan dira betidanik gure gizartean ingeles maila sustatzeko: ingeleseko eskola partikularrak jasotzea eskolaz kanpoko ekintza moduan, eta ingelesarekiko esposizioa areagotzea ikastetxeetan, edota ingelesezko irakaskuntzaren kalitatea hobetzea. Eskola partikularren kontua oso hedatuta dago aspalditik gure gizartean, eta Cenozek dio gutxienez hiru arazo dakartzala:

1. Gehiegizko lana ikasleen eguneko jardunaldian.
2. Gurasoei kostu ekonomiko gehigarria dakarkenez, familia guztientzat eskuragarria ez izatea.
3. Irakasleei zailtasunak ekartzea horrek, homogeneotasun gutxiko ikastaldeak baitituzte, ingeles mailari dagokionez.

Horregatik guztiagatik, argi dago egokiagoa dela ingelesaren irakaskuntza eskola-ordutegiaren barruan eta eskolan bertan bultzatzea; horretarako, hainbat proiektu jarri dira abian azken hamarkadetan, gure ikasleen artean ingeleserako gaitasuna sustatzeko.

Lehen proiektu gisa, Gipuzkoako Ikastolen Elkartek 1990-1991 ikasturtean abian jarri zuen egitasmoa aipa daiteke; adin goiztiarrear (4 urterekin) ingelesa ikasten hastea zen egitasmoaren muina, bi helburu nagusirekin: alde batetik, adin goiztiarretan ikasleek hizkuntzak barnerratzeko duten erraztasunaz baliatzea; eta, bestetik, derrigorrezko hezkuntzaren plangintzaren barruan, ingelesa ikasteko orduen kopurua handitzea, euskararen nagusitasuna arriskuan jarri gabe, betiere. (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, 2009).

Dena den, adin goiztiar batean atzerriko hizkuntza bat ikasten hastea

ez da ideia egokia, ikertzaile guztien ustetan, eta eztabaida ugari sortu izan du gai horrek. Izan ere, Ruiz Bikan-diren (1998) aburuz, adin goiztiarrear ingelesa irakasten hastea ez da gurasoaren presiopean marketin-behar batzuei emandako erantzuna besterik. Gainera, ama-hizkuntza gaztelania duten haurrentzat, euskararen ikaskuntzaren kaltetan izan daitekeela dio, hizkuntza bat oraindik ondo jakin gabe beste bat ikasteak bi hizkuntzetan maila baxua lortzea izan baitezake ondorio.

Bestalde, esan beharra dago gure hezkuntza-sisteman abian jarritako hainbat proiektuk CLIL metodologi-a dutela oinarrian. Proiektu horiek azaldu aurretik, komeni da metodologiaren ezaugarriak azaltzea.

ISEI-IVEI erakundeak 2007an egindako ikerketa batean, "Ikasle hirueledunak bigarren hezkuntzan: egoera berri bat" izenekoan, jasotzen denez, hauek dira CLIL metodologia (Content and Language Integrated Learning/Edukien eta Hizkuntzen Ikaskuntza Integratua) garatzeko kontuan hartzen diren oinarriko printzipioetako batzuk:

1. Ikasteko eta, bide batez, komunikatzeko erabiltzen da hizkuntza.
2. Irakasgai bakoitzak zehaztuko du zer hizkera mota behar den.
3. Hizkuntza bat erabiltzen dugunean, garrantzitsuagoa da hitz-jarioa zehaztasuna baino.

Halaber, teorialarien aburuz, lau printzipio hartu behar dira kontuan CLIL abian jartzeko: edukia, komunikazioa, kognizioa eta kultura; hau da, curriculumeko 4C deritzenak (Content, Communication, Cognition eta Culture). Horien arabera (Coyle, 1999), CLIL metodologian irakasgai bat egoki planteatzeko, honako elementu hauek bateratu behar dira:

- **Edukiak:** ezagutzan, trebetasunetan eta curriculumeko gai espezifikoak ulertzean aurrera egitea.
- **Komunikazioa:** hizkuntza ikasteko erabiltzea, hizkuntza hori ikasten den bitartean.
- **Kognizioa:** kontzeptuak (abstraktuak eta konkretuak), ezagu-

tzak eta hizkuntza lotzen dituzten trebetasun kognitiboak lantzea.

- **Kultura:** nor bere buruaz eta besteen izateaz ohartarazteko, askotariko ikuspegiak eta ezagutza partekatuak erakustea.

CLIL metodologiaren bidez, kontzeptuak, trebetasunak eta jarrerak barneratzea eskatzen duten ikaskuntza-prozesuak bultzatzen dira. Atzerriko hizkuntzan, ikasleek input gehigarri bat behar dute kontzeptuak ulertzeko, eta, gainera, desberdintasun ugari izan ohi dira hizkuntza eta kultura horien artean. Horregatik, CLIL metodologiak oso kontuan hartzen dituzte jarduera bakoitzaren eskaera kognitiboak, eta, horretarako, honako baliabide hauek erabiltzen dituzte: ahalik eta ikus-entzunezko estimulu gehien eta lankidetzako ikaskuntzako baliabide gehien (taldeka edo binaka); euskarri kontzeptualak (eta, egoki denean, irakasleen laguntza handiagoa), eta pentsamendu simple bat eskatzen duten trebetasunetatik konplexuagoetara gero eta maizago salto egiteko bideak. Badu zailtasunik, eta, abian jarrit gero, zenbait kompetentzia metodologiko eskuratu behar dituzte irakasleek. Argi dago abantaila kognitibo horiek lor daitezkeela ama-hizkuntzan ikasita ere.

Dena den, CLIL metodologiaren inguruan egindako esperimendazioan, argi ikusi da irakaskuntzako hizkuntza aldatzeak aldaketa nabaria ekar dezakeela, bai irakasleek irakasteko duten moduari dagokionez, bai ikasleek zenbait eskola eta institututan ikasten duten moduari dagokionez. Hezkuntzaren hobekuntzarako katalizatzaile gisa jokatzeko du irakaskuntza-baliabideen aldaketa horrek.

CLIL metodologiaren adibidea dugu ikerlan honen oinarrian aztergai izan dugun proiektua, *Eleanitz* proiektua, hain zuzen. Egitasmo horren xedea ingelesa adin goiztiarrear ikasten hastea zen; eta beste pauso garrantzitsu bat eman zen gero: 14 urtetik 16 urtera bitartean, hots, DBHko azken zikloan, SSLIC (Social Science and Language Integrated Curriculum) programan sartzea, Gizarte Zientziak ingelesez eskaintzean datzan programa horretan, zehazki (Muñoa, 2011).

“III. Herri hezitzailea, eskola herritarra” jardunaldiak



Maiatzak 19 eta 20 - DONOSTIA

BESTELAKO HARREMAN-EREDU BAT POSIBLE DA

OinHerri antolatutako jardunaldiotan hainbat gako ezagutuko ditugu:

- Haurra, eskubidedun pertsona handi hori.
- Haurrekiko errespetuzko harremanak.
- Harremantzeko eredu berriak.
- Bortizkeriarik gabeko harremanak.
- Irakasle-ikasle harreman horizontalak.
- Harreman parekideak.
- Norbere buruarekin eta ondokoekin harreman osasuntsuak.
- Ongizatea, tratu ona eta demokrazia eskoletan.
- Harremanak kulturantzatasunean.

Informazioa eta izena ematea: www.hikhasi.eus

PEDAGOGO SORTZAILEAK

ANGELICA OLVERA

Pedagogo sortzaileak izeneko monografikoa eguneratzen dihardu Hik Hasi egitasmo pedagogikoak, eta datorren ikasturtean emango du argitara edizio berritua. Hainbat pedagogo liburuxkan txertatu aurretik, ordea, *hik hasi* aldizkarian argitaratuko du haien inguruko informazioa, adituen eta arituen eskutik. Pedagogia Sistemikoaren sortzaile Angelica Olveraren inguruko ekarpen hauxe da zerrenda horretan bosgarrena.

Angelica Olvera da eskolatestuinguruan gero eta gehiago entzuten den Pedagogia Sistemikoaren sortzaile eta bultzatzaile nagusia. Bera izan zen Bert Hellinger-ek familia-konstelazioetarako (metodo terapeutiko bat) zerabilen planteamendua hezkuntza esparrura ekarri zuen aurrenekoetarikoa. Hain zuzen ere, 15 urte bete berri dira, Sabadellen (Katalunia) emandako hitzaldi batean, estreinakoz, Pedagogia Sistemikoa terminoa erabili zuenetik. Geroztik, Pedagogia Sistemikoaren



Aritz Larreta eta Iñaki Arana

Pedagogia sistemikoan adituak

bueltako formazioa eskainiz dabil Mexikon nahiz mundu osoan zehar, eta etengabeko hezkuntza ikerketan ere badihardu.

Datu biografikoak

Arbaso euskaldunak (Abaltzisketa, Gipuzkoa) ditu Angelica Patricia Olvera Garciak. 1954. urtean jaio zen, Mexikon. Rufino Olvera eta Olga Garciairen bost seme-alabetan zaharrena da bera. Kimika ikasketak egin zituen UNAMen (Universidad Nacional Autonoma de Mexico) eta hantxe ezagutu zuen gero bere senarra izango zena, Alfonso Malpica. Hasieran, ingeniari lanetan aritzen zen, baina ama izan ondoren, bere senarraren familiarena den hezkuntza-proiektuan sartu zen buru-belarri, Doctor Emilio Cardenas Unibertsitate Zentroan (CUDEC).

Ibilbide akademiko zabala duen profesionala da Angelica Olvera: izan ere, kimika ikasketez gain, Giza Zientzietan ere lizentziaduna da; psikologia arloari dagokionez, berriz, Gestalt terapian, Programazio Neurolinguistikoan (PNL), Familia-konstelazioetan, Psikologia Transpertsonean, Psikologia Komunitarioan eta Terapia Labor Estrategikoan formatu da.

Ezer baldin bada, ekintzailea, iker-tzailea eta iraultzailea da Angelica Olvera. Besteak beste, berak sortu zuen 1986an, CUDECen bertan, PAF

delakoa (Programa de Apoyo Familiar). Lehen urte hartan, 18 gurasorekin hasi ziren, baina gaur egun, jada, 30.000 gurasok baino gehiagok parte hartu dute programa horretan.

1993an, Montessori-metodoan gidari lanetan aritzen zen bere ahizpa baten bidez, pedagogia operatorioaren edo konstruktibismoaren berri izan zuen. Hala, suitzar jatorriko bi pedagogok Bartzelonako Udaleko Institut Municipal d'Investigacio en Psicologia Aplicada a l'Educacio (IMIPAE) delakoaren berri eman zieten.

1994ko apirilean, PAFen parte hartzen zuen guraso bati esker, IMIPAE institutuko hiru kiderekin elkartzeko aukera izan zuen eta horiek Rosa Sensat elkartearen berri eman zioten. Urte horretako udan bertan, Bartzelonara bidaiatu zuen Olverak eta Rosa Sensat elkartean konstruktibismoari buruzko hainbat ikastaro egin zituen. Hor entzun zuen, estreinako, Bartzelonako Institut Gestalt delakoaren berri ere. Gerora, han ezagutuko zuen Bert Hellingerren lana.

Bartzelonatik Mexikora bueltan, Rosa Sensat elkartean ikasitakoak aplikatzen hasteari begira, CUDECen bertan psikopedagogia departamentua edo saila jarri zuen martxan. 1995, 1996 eta 1998 urteetan ere Bartzelonara bidaiatu zuen. Mexikotik Bartzelonara eta Bartzelonatik Mexikora, horrelaxe ibili zen zenbait urtez Olvera.

1999an, Bartzelonara bidaiatu zuten Alfonso Malpica eta Angelica Olvera senar-emazteek, oraingo honetan, printzipioz, atsedean egun batzuk hartzeko asmoz. Dena den, atsedenetik gutxi izan zuen, izan ere, Olverak Rosa Sensat-eko ikastaroetan ezagutu zuen Mireia Darder-ek Institut Gestalt-era gonbidatu zituen senar-emazteak. Hantxe ezagutu zuten Bert Hellingerrek familia-konstelazioen bidez egiten zuen lan terapeutikoa. Txundituta gelditu ziren mexikarrak.

Berehala konturatu zen Olvera terapia saio hartan ikusitakoak eta, batez ere, bizi izandakoak, hezkuntzarako ere baliagarriak zirela eta, hala, Bert Hellingerrek familia-konstelazioetan zerabiltzan oinarritzko printzipio filosofikoak bere egin eta hezkuntza esparrurako nola egokitu pentsatzen



Angelica Olvera.

hasi zen. Aitzitik, helburua inolaz ere ez zen eskola-testuinguruan terapia egitea, bizitzari eta ordenari begirako printzipio filosofiko horiek pedagogiaren eta ikasleen garapen-eta ikaskuntza-prozesuen zerbitzura jartzea baizik. Halaxe sortu zuen, bada, Angelica Olverak Pedagogia Sistemikoa.

Pedagogia Sistemikoaren printzipio nagusiak

Esan dugunez, Angelica Olvera izan da hezkuntza proposamen honen sortzailea, baina, egiari zor, esan behar da, Marianne Frank irakasle alemaniarra izan zela familia-konstelazioen printzipioak ikasleekin aplikatzen hasi zen lehena. Bere esperimentziaren berri idatzi zuen, hain justu, *Eres uno de nosotros* liburuan.

Dena den, inor gutxik ukatuko du, Angélica Olvera dela Pedagogia Sistemikoaren bultzatzaile nagusia, Bert Hellingerren printzipio filosofikoak irakaskuntza-ikaskuntzaren zerbitzura jartzen lanik gehien egin duena, beti ere, xede argi batekin: haur zein gazteek erraztasun handiagorekin ikastea.

1999tik hona etengabeko hezkuntza-ikerketan lanean aritu da Olvera eta aurkikuntza esanguratsuak

egin ditu. Esate baterako, besteak beste, berari esker dakigu, badirela ikasleen garapen- zein ikaskuntza-prozesua baldintzatzen duten indar edo aldagai sistemiko eta transgenerazional batzuk. Adibide pare bat ematearren:

Ikasle askok, inkontzienteki, euren garapen- zein ikaskuntza-prozesuari uko egiten diote guraso edota aitona-amonaren batekiko halako leialtasun edo maitasun itsu bat dutelako. Frogatu ahal izan du, esaterako, haur batek hizkuntzaren bat ikasteko nekea izan dezakeela gurasoetakoren batek aitona-amonek bizi izandako erbesteratze egoeraren bat onartu ez duelako. Gertatzen da, baita ere, ikasleren batek diziplina-arazoak izan eta eskolatik kanporatua izatea, eta barne-barneko arrazoia edo indarra hau izatea: gurasoek ikasketak ordaintzeko zailtasunak izatea.

Goiko horiek bi adibide baino ez dira honako eta ez du esan nahi horrelako kasuetan beti azaldu dugun hori izango denik zergatia, ezta gutxiago ere! Kasu bakoitza bere osotasunean aztertu beharra dago, noski, eta horretarako beharrezkoa da ikasleak azaltzen duen jokabideari edo zailtasunari ikuspegi sistemikotik begiratzea, ikaslea bere osotasunean hartu ahal izateko eta

Pedagogia Sistemikoa bizitzari begira dagoen pedagogia da; ikasleari pertsona gisa begiratzen dion pedagogia, bere osotasunean, batez ere, beste testuingurua errespetatuz eta onartuz. Ez ditu ikaslearen jarrerak epaitzen; epaitu baino, ikaslearen testuinguruan ulertzen saiatzen da.

bere jarrera ulertzera hurbiltzeko: “Zer zentzu dauka ikasleak eskolan azaltzen duen jokabide eta zailtasun horrek bere familia-sistemaren baitan? Zer harreman izan dezake zailtasun horrek bere sisteman bizi duten edo bizi izan dutenarekin?”.

Bizitzari begira

Pedagogia Sistemikoa bizitzari begira dagoen pedagogia da; ikasleari pertsona gisa begiratzen dion pedagogia, bere osotasunean, batez ere, bere testuingurua errespetatuz eta onartuz. Ez ditu ikaslearen jarrera eta jokabideak epaitzen; epaitu ez baino, ikaslearen beraren testuinguruan ulertzen saiatzen da. Ikaslea bere familia-sistemaren baitan ulertzen du, sistema horrek gaur egun nahiz aurrez bizi izan duen guztia errespetatuz.

Irakaslearen funtzioa edota lana aberasten eta errazten duen pedagogia ere bada, irakasleak begirada zabalagoa izatea eragiten duena eta ikasgelarako tresna eta baliabideak eskaintzen dituena. Irakaslearen presentzia lantzen duen pedagogia da, bere lekua aurkitzen lagunduko diona eta ikasgelan jazotzen diren egoerei

etsi eta horiek kudeatu ahal izateko baliabideak eskainiko dizkiona.

Aldi berean, irakasle eta gurasoen artean zubiak eraikitzen dituen pedagogia da, gurasoak eta euren testuingurua kontuan hartuko duena; haurrek gurasoekiko azaltzen duten leialtasuna begi onez ikusiko duena eta leialtasun hori ikaslearen ikaskuntza-prozesua indartzeko baliatuko duena.

Zubi-lana

Gurasoek seme-alabak eskolara eramatean, bizitzarako baliagarri izango zaizkien gaitasunak gara ditzatela nahiko dute, eskolan ikasitakoa barneratu dezatela beste testuinguru batzuetan ere erabiltzeko gai izan daitezen, kideekin erlazionatu eta elkarlanean ere trebatu daitezela, errespetuz, eta, aldi berean, ikastea eta elkarrekin partekatzea ahal bezainbat goza dezatela.

Tutore zein gainerako irakasleek euren haurrak (ikasleak) osotasunean hartuak izatea nahi dute gurasoek. Hori gerta dadin, baina, funtsezkoa da ikasleen familiak ere kontuan hartzea; izan ere, ikasleak ez dira bakarrik joaten eskolara, norbere etxeko eta familiako bizipen eta esperientzia guztiarekin baizik. Beraz, euren familia-sistema eta testuingurutik jasotzen duten guztiarekin doaz eskolara. Bizipen horiek guztiak dira haurraren parte, eta bere izaera osatzen dute.

Aldi berean, gurasoek ere irakasleena errespetatzen eta estimatzen duten neurrian, elkarrekiko konfiantza indartuz joango da, irakasle eta gurasoak bat eginda aritzea ezinbestekoa baita haurraren ikaskuntza-prozesua indartu nahi badugu.

Esker ona

Elkarrekiko esker ona ere tresna garrantzitsua da, beraz. Esker ona, gurasoei, beren seme-alabak bizitzarako presta ditzaten, eskola jakin batean konfiantza jarri dutelako; esker ona, irakasleari, seme-alabaren ikaskuntza-prozesua hornitzen eta indartzen ari delako; esker ona, zuzendaritza-taldeari, bere gidaritza-pean ikastetxeak zehaztutako lan-ildoek seme-alaben ibilbidea eta izaera

indartuko dutelako.

Konfiantza

Gaur egungo hezkuntza-prozesuetan guztiz beharrezkoa dugu konfiantzatik aritzea ere. Haurrak, konfiantzaz begiratzen diogula sentitzen duenean indartu egiten da, eta bere garapen-prozesuan oso lagungarria egingo zaio helduek beregan jartzen duten begirada hori. Horrez gain, bizitzari konfiantzaz begiratzeak aukera berriak eskainiko dizkigu eta osasungarriagoa izango da, zalantzarik gabe.

Bizitzak bat-batean eskaintzen dizkigun aukera eta proposamen berrien aurrean, orokorrean, zein da gure lehen jarrera? Irekitasunez eta konfiantzaz hartzen ditugu edota defentsiboki eta mesfidantzaz aztertzen ditugu, arrisku bat balira bezala? Bestalde, nola nahiko dugu jaso ditzatela gure haurrek eta ikasleek proposatzen dizkiegun aukera eta proposamen berriak? Izpiritik kritikoa lantzea beharrezkoa izanik, noski, biziarekiko konfiantza garatzeak aberastu eta indartu egingo gaitu.

Gertatzen dena bere horretan hartzea

Pedagogia Sistemikoak baietzaren balioaz jabetzea proposatzen digu, bizitzak eskaintzen dizkigun hainbat eta hainbat aukeren aurrean jarrera irekia izatea. Eta egoerak eta gertakizunak ere bere horretan hartzea; aitzitik, sarritan, gertaturikoa bere horretan gertatu dela onartzea kostatu egiten zaigu eta, horren ordez, indarrak konponbideari begira jarri beharrean, kexatzera eta kritikatzera mugatzen gara.

Hellingerrek eta Olverak “gertatzen dena bere horretan hartzea” proposatzen digute, begiak irekita begiratu eta bere testuinguruan kokatuz. Eta egoerari azaltzen den bezala begiratzen badiogu, konponbidea ere modu argigarriagoan aurkitu ahal izango dugu. Horretarako, gure presentzia landu beharra dugu, gure emozioak, gure aurreiritziak... gertatzen denaren aurrean konfiantzaz joka dezagun. Eraldaketarako jarrera garrantzitsua da hori ere.

Gertatzen dena bere horretan hartu eta gure presentzia landu ahala,

laguntza hobea eskaini ahal izango dugu, nola esparru pertsonalean hala profesionalean. Gelan azalduko diren egoerak eta ikasleek agertuko dituzten jarrerak eusteko eta laguntzeko indarra eta lasaitasuna izango dugu. Horrela egin ezean, desatseginak eta onartezinak zaizkigun egoeren aurrean haserretik, amorrutik, belduurretik edota erresistentziatik arituko gara, eta horrek proposamen eta irtenbide osasungarriak aurkitu ahal izatea eragotziko digu.

Ikaslearen testuingurua

Esan bezala, eskolara datorren ikaslea ez dator bera bakarrik, bere familia eta sistema osatzen duten pertsonak bizi izandako esperientziak ere berarekin datoz. Familian bizitzen ari diren egoerak guztiz baldintzatzten du haur horren bizitzarekiko eta eskolarekiko jarrera. Aitzitik, orain familian bizitzen ari diren egoerak ez ezik, aurretik bizi izandakoek ere eragiten dute ikaslearengan.

Zer suposatzen du haur honentzat eskolara etortzeak? Zer utzi du etxean? Zer bizitzen ari dira bere gurasoak? Baimenik ba al du ikasteko? Zer harreman izan zuten bere gurasoek eskolarekin? Ikasteko aukerarik izan al zuten?

Galdera horiek eta antzeko beste hainbat lagungarri dira ikasleak eskolan ager dezakeen jarrera ulertzeko. Ikaslea guztiz leiala baita familiarekiko, bere sistemarekiko, eta ikasterakoan edota ez ikasterakoan, sarritan, familiako norbaitekiko leialtasun ezkutua adieraziko du.

Etxean egoera zaila bizitzen ari badira, nola familia osoa hala gurasoetakoren bat, zaila izango da haur horrentzat eskolan zentratuta egotea, nolabait, bere arreta, begirada, inkontzienteki sarritan, etxera begira egongo baita. Bestalde, gurasoek euren garaian eskolarekin bizi izandako esperientziak ere eragina izan dezake haurrak ikasketekiko duen jarreran.

Pertenentzia

Haur zein helduok gure familia-sistemarekiko leialak gara, modu batean edo bestean, eta gehienetan, gainera, guztiz era inkontzientean. Beraz, neurri handi batean, leialtasun horrek

mugitzen gaitu bizitzan zehar. Pedagogia Sistemikoak leialtasun hori kontuan hartzea proposatzen digu, ikaslearen jarrera ulertze bidean. Norekiko leialtasuna adierazten ari da ikaslea bere jarrera eta jokabideen bidez?

Hellingerrek azaltzen duenez, pertenenentzia da gure sentimendurik sakonenetako bat. Eta pertenenentzia behar horrek gidatzen gaitu, gehienetan, gure erabaki hartzeetan.

Helduontzako gai interesgarria da pertenenentziaren hau, gure garapenerako kontziente egin beharreko gaia. Bizitzan aurrera egin nahi badugu, hazten segi nahi badugu, gure kontzientziak esaten diguna baino harago joan beharko dugu zenbaitetan, nahiz eta, batzuetan, familiaren ohitura eta aginduetatik urruntzeko arriskua eta sentimendua bizi.

Irakaslearen testuingurua

Ikaslearen kasuan gertatzen den bezala, irakaslea ere ez dator bakarrik eskolara. Bere testuinguru guztiarekin dator, gurasoek eta arbasoek bizi izandako esperientziak ere berarekin datoz. Guraso eta arbasoengandik jaso dugunaren ondorioa baikara gizakiok, eta baita, noski, guk geuk bizi izandako esperientzien ondorioa ere.

Pedagogia Sistemikoak irakasleak bere ibilbideari eta familia-sistemari modu kontzientean begiratzea proposatzen du, ikasgelan sortzen zaizkion emozioak aztertuz eta ulertuz, bide batez, irakasle lanean presente egoteko eta ikasleen bidelagun izateko gaitasuna garatzen lagunduko diolako.

Tresna oso baliagarriak dira lan horretarako bai autobiografia akademikoa bai genograma ere. Autobiografiaren bitartez, eskolan zein ikaskuntza-prozesuan bizi izandakoei begiratuko die irakasleak, eta atzera begirako hori oso aberasgarria izango zaio. Irakasleak berak ikasle garaian bizi izandako bizipenen kontzientzia hartzeak bere ahalmen eta trebetasunak indartuko ditu, orduko zailtasunak ere gaur egungo irakasle lanetarako lagungarri bihurtuz.

Genogramaren bidez (zuhaitz-genealogiko modukoa), irakasleak bere jatorria eta izaera hobeto ulertu

ahal izango ditu, eta, bide batez, bere familia-sisteman eta, beraz, baita eskola-sisteman ere, zer leku dago-kion konturatzeko ere balio izango dio; izan ere, askotan, irakasleak bere familia-sisteman hartzen duen lekuak eskola-sisteman hartzen duenarekin lotura zuzena izaten du.

Dagokigun lekua

Bert Hellingerren filosofian, ordena giltzarria da, eta Pedagogia Sistemikoaren oinarrietako bat ere bada. Gutako bakoitzari leku jakin bat dagokigu parte garen sistemetako bakoitzean. Familian, esaterako, dagokigun lehen tokia seme edo alabarena da, eta toki hau hartzea guztiz garrantzitsua da gure bizitzarako. Toki bat ere badagokigu anai-arreben artean, eta dagokigun tokian jartzeak lasaitasuna dakar sistemara.

Eskolara begira ere ordena guztiz beharrezkoa da. Irakasleak bere tokia hartu behar du, zuzendariak berea, aholkulariak ere dagokiona, eta noski, gurasoek ere euren. Batzuetan, baina, konturatu ere egin gabe gure tokitik ateratzen gara, eta borondate onenarekin irakasleak gurasoen tokia hartzen du, irakasle funtziotik harago joanez eta gurasoen jarduna aintzat hartu gabe. Ikaslearentzat ez da batera mesedegarria izango, baina ezta irakaslearentzat ere. Beste batzuetan, berriz, gurasoak irakaslearen gainetik jartzen dira, hauek ere konturatu ere egin gabe, eta hori ere ez da batera mesedegarria izango ikaslearentzat.

Pedagogia Sistemikoak, beraz, dagokigun lekua zein den aurkitzen laguntzen digu, gainerakoei dagokiena errespetatuz. Gutako bakoitzari leku jakin bat dagokigulako. Amparo Pastor (g.b.) irakasle madrildarrak zioen bezala, “Hezi ahal izateko, nor bere lekuan”.

Bert Hellinger-ek eta Angelica Oliverak sortu eta garatu duten proposamen filosofiko eta pedagogiko honek bide eder eta zabala du aurrera begira, guztion artean gauzatu eta zabaldu dezakeguna, nor bere eraldaketa prozesutik abiatuta, eta helburu berarekin, hau da, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua indartzen jarraitzea.

Konfiantzaz, errespetuz eta alaitasunez. Bidean goaz.

GALDEIDAZU

ZER DA JOLAS-TERAPIA ETA ZEIN EKARPEN EGIN DIEZAIIOKE ESKOLARI?

ZJolas-terapia da jolasa laguntza terapeutikorako erabiltzea, alderdi fisiko, espiritual, emozional, afektibo eta kognitiboetan era kontzientean nahiz inkontzientean sakonduz, eta modu ez-oldarkor eta ez-intrusibo batean eginez aurrera.

Nondik dator jolas-terapia?

Jolas-terapia autore askoren ekarpenetatik eta praktikatik garatu den diziplina terapeutiko bat da, gaur ezagutzen dugun bezalakoa izan aurretik eta horrela izendatu aurretik sortzen hasi zena. Haurrengan jolasak zuen ahalmen terapeutikoaz jabetu ziren lehenak eta bide hori abian jarri zuten lehenak Anna Freud (1928), Margaret Lowenfeld (1935), Melanie Klein (1961) eta Donald Woods Winnicott (1896-1971) izan ziren. Haurren terapeuta psikoanalitikoak ziren, eta jolasaren balio terapeutikoak ohartu ziren beren jardunean. Haurren psikoterapian erabili zuten jolasa, eta haurrengan berezko jolasari helduen psikoanalisian ikusten diren asoziazio librearen elementu berak egotzi zizkieten.

Bestalde, Carl Jung-ek (1875-1961) eta Frances Wickes-ek (1963-1977) ere ekarpen garrantzitsuak egin zituzten, haurrengan jolasaren eduki sinbolikoaren inguruan.



JOLAS-TERAPIAKO EUSKAL HERRIKO ELKARTEA



Aldaketarik handiena eta jolas-terapiaren izendatze eta zedarrantzea Virginia Axline-ren (1969) eskutik etorri zen, Carl Rogers-en Bezeroarengan Zentratutako Psikoterapiara egokitu baitzuen korrante psikoanalitikoak; hark sortu zuen jolas-terapia ez-direktiboa deritzona ere. Axlinerengandik bidetara jarraitu dion eta arlo hori zabaltzen jardun duen haurren terapeuta azpimarragarria Violet Oacklander (1988) dugu.

Zer da jolasa? Jolasaren garrantzia

Haurren jolasak berezko esangura eta helburua ditu; berezko, funtsezko eta beharrezko osotasuna du, eta, haren bidez, gauza berriak ikasten ditu haurrak; ikertu egiten du; sormenaz gozaten du; pentsamenduak adierazten ditu; bulkadak eta emozioak kanporatzen ditu; ametsak betetzen ditu, eta helduak debekatzen dion guztia egiten du. Jolasa, zalantzarik gabe, naturalki sortzen da haurrengan, eta modu berezia da ingurunearekin harremanetan jartzeko. Jolasaren bidez, bizitako gertaerak prozesatzeko aukera du haurrak: tentsioa, ziurtasunik eza, beldurra, ezjakintasuna eta frustrazio-sentimenduak kanporatzeko eta horien bidez esperimintatzeko aukera eskaintzen dio jolasak haurrari. Aukera ematen dio, gainera, inguru natural eta gizatiar batean benetakoa

eta dinamikoa izateko, eta, aldi berean, inguru horretan aritzeko.

Haurrak jolas egiten du bere gaitasunak ezagutzeko, mundua ezagutzeko eta, halaber, besteek bera ezagut dezaten. Inguru eta inguruko mundua ezagutzen ikasten du. Haurren jolasean, argi ikusten da haurra gai dela sinboloak eta zeinuak erabiliz testuinguruak sortzeko, egoerak aurreikusteko, ekintzak planifikatzeko edo errealitatea interpretatzeko. Horregatik, esan dezakegu haurtzaroko oinarriko ekintza bat dela jolasa, naturalki sortzen dena, librea, bat-batekoa, borondatezkoa, eta ingurune ko kultura-ezaugarriak jasotzeko prozesua bultzatzen duena.

Jolasa fikziozko errealitate batean egiten da. Jolasean, haurra berak nahi duena izan daiteke; errealitatearen mugak gaindi ditzake, eta irudi-menezko munduan murgil daiteke, komeni denaren arabera guztia lortu, zuzendu edo bideratu daitekeen mundu horretan. Hau da, fikzioa da jolasaren funtsezko elementuetako bat. Ezaugarri hori Freudek azpimarratu zuen, eta beste autore askok berresten dute. “Zerbaitetan jolastea” errealitate paralelo bat sortzea bezala da, baina fikzioa dela ahaztu gabe. Benetako munduari kontrajartzea dakar berarekin fikzioak, eta aukera ematen dio haurrari errealitateak inposatutako eskakizunak alde batera uzteko, eta bere arau propioak izateko, gustura onartzen eta betetzen dituen arauak, zehazki. Adibidez, bere emozio oldarkorrak adierazteko aukera ematen dio jolasak, errua edo helduen gaitzespena sentitzeko beldurrik gabe. Jolasean, dragoi baten aurka borroka daiteke, eta hura hil dezake, baina ekintza horiek ez dute inolako ondoriorik izango errealitatean, ez baita jolasa besterik.

Jolasaren inguruan, ordea, uste okerrak izaten dira. Jolasa ez da lan tresna bat. Ez da erreminta pedagogiko bat, ez eta entretenimendua ere. Kontu serioa da jolasa, hots, hazteko eta bizitza heldurako prestatzeko era bat da. Haurrentzat, arnasa hartzea bezain garrantzitsua da jolasa, eta ez zaio jolasten irakatsi behar. Aditua da horretan. Haurra da jolasaren egilea, aktorea eta zuzendaria, aldi berean.

Hasieratik haurraren ekimen autonomoaren esparruan sortzen diren aukera guztiak bermatzea da helduaren zeregina, mugimendu askea eta jolas independentea helburu hartuta. Laburbilduz, hazkunde fisiko, emozional, kognitibo eta soziala ahalbidetzen dio jolasak haurrari. Osasuntsu dagoen edozein haur aritzen da jolasean, eta, oinarri-oinarrian, horixe da egin behar duena: jolastu.

Jolas-terapia (kontzeptua zabaltzea, ezaugarriak, metodologia, teknikak, terapeutaren rola eta prestakuntza, teoria, Axlineraren printzipioak). Gelaren ezaugarriak, haurrak garatzen duen prozesua, denboraren beharra...

Jolas-terapiak haurrari bera izateko aukera ematen dio; bere Nia onartzera lagunduko dio, inolako ebaluaziorik eta presiorik gabe. Emozioak bideratzeko bide bat izateaz gain, bere burua ulertzeko eta berregituratzeko aukera eskaintzen dio haurrari.

Jolas-terapiako saioetan, haurrak aukera du jolasaren bidez bere barnean dituen sentimenduak kanporatzeko, eta haiekin jokatzeko. Modu ireki eta seguru batean, barruan duena kanporatzeko unea eta gunea eskaintzen dizkio jolasak; heldua den aditu baten begiradapean beti, noski. Haurrak, jolasaren bidez, bere barne-mundua kanporatu ahal izango du, eta, aldi berean, aukera emango dio bere buruari aurre egitea onartzeko, ikasteko eta kontrolatzeko.

Arestian esan bezala, heldu aditu objektibo baten begiradapean arituko da jolasean haurra. Den bezala onartuko du helduak; aintzat hartuko ditu jolasaren ezaugarriak, eta horren irakurketa egingo du.

Hauek dira, Virginia Axlinek zehaztutakoaren arabera, jolas-terapiaren zortzi printzipioak:

1. *Konfiantzazko, laguntasunezko, errespetuzko eta afektuzko harreman arretatsu bat eraikitzea.*

Umearekin, harreman adiskidetsua du terapeutak, bien arteko harremana atsegina izan dadin, ahalik eta arinen. Harreman terapeutikoa ezinbestekoa den alderdia da.

2. *Haurra den bezala eta norbanako bezala onartzea.*

Terapeutak umea den bezala onartzen du. Onartzeak ez du esan nahi

Jolasa, zalantzarik gabe, naturalki sortzen da haurraren, eta modu berezia da ingurunearekin harremanetan jartzeko. Jolasaren bidez, bizitako gertaerak prozesatzeko aukera du haurrak: tentsioa, ziurtasunik eza, beldurra, ezjakintasuna eta frustrazio sentimenduak kanporatzeko eta horien bidez esperimentatzeko aukera eskaintzen dio jolasak haurrari. Aukera ematen dio, gainera, inguru natural eta gizatiar batean benetako eta dinamikoa izateko, eta, aldi berean, inguru horretan aritzeko.

egiten duenaren onespina dagoenik. Jarrera abegitsuan dago gakoak: umeak egiten edota esaten duena aintzat hartzea da, bakoitzaren banakotasuna aintzat hartzea. Umeak esan edo egiten duena egiten duela ere, haurra ulertu egingo du, eta, une oro, den bezala onartuko du. Horixe sentiarazten dio umeari. Horrela, terapeutak haurra bere barne-munduan gero eta gehiago sartzera eramango du, bere benetako Nia aurkitzeko.

3. *Permisibitate-jarrera izatea, haurrak era libre batean egin ditzan bere adierazpenak.*

Terapeutak jarrera permisiboa du umearekin. Aske sentitzen da haurra bere sentimenduak kanporatzeko. Horrela, errespetuan, onarpenean eta afektuan oinarritutako harremana sortzen du terapeutak umearekin, eta den bezala onartzen du umea.

4. *Haurraren sentimenduak onartzea eta balioestea.*

Haurra barnean jasaten ari den horrekin konektatuko du jolas-terapeutak. Haurrak gorderik daukan sufrimenduan leudeke umearen afektua eta bizi-ahalmena, bai eta antsietatea, beldurra eta areriotasuna ere. Adi dago terapeuta, erne, haurraren sentimenduak antzemateko. Terapeutak sentimendu hori islatzen du haurraren, eta, horrela, bere eskarmentuan sakondu dezake.

5. Haurra errespetatzea: haurraren erantzukizuna da erabakiak hartzea eta aldaketak egitea.

Terapeutak tentuz behatzen dio haurrari, arazoak konpontzeko duen trebetasuna aztertzeko. Haurrari dagokio erabakiak hartzea, bai eta aldaketak egitea ere.

6. Bidea haurrak zuzentzea: hark zuzenduko du bidea, eta jarraitu egingo dio terapeuta.

Terapeutak ez dauka inolako intentziorik haurraren ekintzak edo solasaldia bideratzeko.

7. Terapia presaka ez egitea: haur bakoitzak bere prozesua du.

Terapeutak ez du terapiaren ibilbidea azkartu nahi. Gutxikako prozesu bat da ibilbide hori, eta hala onartzen du terapeuta.

8. Terapiari eusteko beharrezkoak diren mugak jartzea.

Terapiak mundu errealean iraun dezan eta hor koka dadin, beharrezkoak diren mugak soilik jarriko dizkio terapeuta haurrari, eta jakinaren ganean jarriko du.

Jolas-terapiak hainbat metodo espezializatu eta teknika ludiko hartzen ditu barnean, haurrak adierazpen eta emozioak autokontrolatzeko eta kontzientzia zabaltzeko dituen baliabideak eta potentzialtasuna ezagut ditzan; horrez gain, aukera ugari eskaintzen dizkio, garapenerako jarraibideak normalizatzeko.

Besteak beste, honako erreminta eta metodo hauek erabiltzen dira jolas-terapiari:

- Gerturatu, sentitu.
- Arakatu, esperimentatu.
- Mugitu, adierazi.
- Konturatu, kontziente egin.
- Proiektatu, irudikatu.
- Hustu, askatu.
- Imajinatu, dramatizatu.
- Hausnartu eta zentzua eman.

Hauek dira jolas-terapiari erabiltzen diren teknika terapeutiko nagusiak:

- Gorputz-adierazpeneko teknikak.
- Adierazpen plastikoko teknikak.
- Musika-terapiako teknikak.
- Teknika proiektibo sinbolikoak.
- Adierazpen narratiboko teknikak.
- Animaliez baliatutako afektuen adierazpen-teknikak.
- Deskarga motorreko teknikak.
- Erlaxazio- eta irudikatze-teknikak.
- Teknika sortzaileak.
- Dramatizazio-teknikak.

Nori zuzentzen zaie?

Jolas-terapia, oro har, sufritzen ari diren haur guztiei zuzentzen zaie, eta, esku-hartze terapeutikoari dagokionez, kasu hauek hartzen ditu bere gain:

Alderdi emozionalean: Autoestimua baxua eta ziurtasun-arazoak dituzten haurrak; beldurrak, tristurak eta une oro haserreak dituzten umeak; larrialdia edo herstura duten haurrak; gaueko beldurrak, irudizko lagunak edota fantasiak dituzten haurrak; duten adinerako heldugabeak diren jokaerak dituzten haurrak; hiperaktibitate-arazoak dituzten haurrak; gizarteratzeko zailtasunak dituzten haurrak; familiako egoera berrietara egokitzeko zailtasunak dituzten haurrak, edo ihesaldiak egiten dituztenak; depresioa duten haurrak, edo ez dutela bizi nahi esaten duten haurrak; eta jokabide antisozialak dituzten haurrak.

Lehen mailako esku-hartzeetako trauma kasuetan: Jaiotzeko uneko edo jaio ondoko trauma duten haurrak; tratatu txar fisiko edo emozionalen bat jasan duten haurrak; sexu-jazarpena pairatu duten haurrak; familian izandako tratatu txarren lekuko izan diren haurrak; jazarpena jasan duten haurrak; utzikeria eta arduragabekeria jasan dituzten haurrak; galerak edo bukatu gabeko dolua duten haurrak; gurasoen banaketa edo dibortzioa; ospitaleratutako haurrak, beldurgarriak edo mingarriak diren jarduera medikoak jasan dituzten haurrak, edo istripuren bat izan duten haurrak;

gaixotasun kroniko edo terminalak dituzten haurrak; gudu edo hondamendi naturalak jasan dituzten haurrak; eta trauma osteko nahasmendua duten haurrak.

Bigarren mailako esku-hartze batean, diziplinarteko tratamendu baten barruan: Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua duten haurrak; antsietate-nahasmendua duten haurrak; atxikimendu-nahasmendua eta afektuen eskasia duten haurrak; portaeraren nahasmendua duten haurrak; nortasunaren nahasmendua duten haurrak; garapenaren nahasmendua duten haurrak; eta nahasmendu psikosomatikoak duten haurrak.

Jolas terapeutikoa eskolan

Euskal Herriko Jolas Terapia elkar-teak, eskola testuinguruan jolas terapeutikoaren erabilera bultzatzen du.

Eskolak eskaintzen dituen praktika onak aprobetxatuz eta jadanik eskoletan dauden Heziketa Bereziko antolamenduko egiturak erabiliz, jolasa haurraren berezko ekintza izanik, honen bidez haurraren irudimenezko pentsamendua berreskuratu eta sustatu nahiko genuke, batik bat, gaur egun jolas librea, artea eta sormen ekintza curriculumetik urruntzen ari diren garai hauetan.

Jolas terapeutikoa ikaskuntza prozesuan txertatzerakoan, haurrek berezkoak dituzten konpetentziak lantzeko aukera izango dute, hala nola, pentsatzeko, ekiteko, norbera izateko eta komunikatzeko gaitasunak naturalki eta modu ziurrean eraikitze-ko eta lortzeko. Horretarako, eskolako gaur egungo egiturari, Pedagogia Terapeutikoko hezitzaile berezien zereginak aintzat hartu ezker, heldua eta haurraren arteko momentuko egoerak bultzatutako komunikazio-uneak esanguratsuak izan daitezkeen jolasa beharrezkotzat jotzen dugu. Haurrak jolasaren bidez jokatzeko eta esperimentatzeko aukera duen heinean, bere jokabidea agerian uzten du, berarentzat jolasa momentukoa eta konkretua delako. Egoera honek, nahi gabe ere, berarekin lanean ari den helduari aukera emango dio haurraren ebaluazio globala eta uneko diagnosiaren

ulergarritasuna izateko, lan-harremana finkatzeko eta ikaskuntza prozesuaren kontzientzia hartzeko.

Heziketa premia bereziak (HPB) dituzten ikasleak gelan egoteaz gain, bertako partaide izan daitezzen beren bizitzaren protagonista direla sentitu behar dute. Rogersek esan bezala pertsona bakoitza bere bizitzaren protagonista denean gai izango da bere mugez jabetzeko eta bera den bezala onartzera iristeko. Umearengan zentraturiko terapia honek ez dauka helburutzat arazoak konpontzea, bai, aldiz, haurrak une horretan bizi duenarekin enpatizatzea. Hori hala, lagungarri suertatuko litzaieke heldu ziur eta enpatiko batekin esperientziak izatea, haurra onartzen duen helduarekin, hain zuzen. Rogersek dioen bezala, “zer gertatzen da gertatzen zaionarekin” ideiak momentuko egoera aztertzea emango gaitu eta ez emaitzei begira egotera.

Aipatu dugu jolas terapeutikoari helduaren presentziak eta begiradak ematen diola izaera propioa, profesional berezilari hau, ez da gidari edo diagnostiko egile izango, haurrak bere burua deskubritzera eramango duen ibilbidean bitartekari eta bidelagun

baizik. Helduak, arestian esan bezala, harreman enpatikoa eta konfiantzazkoa eskainiko dio haurrari, hark bere premiei eta arazoei aurre egiteko duen gaitasunaz baliatuz. Jolasa, haurrak ulertzeko erabiltzeaz gain, berarekin harreman sostengatua lortzeko ere erabiliko du, haurraren mundu emozionalean parte hartu eta lankidetzan aritzeko inolako epairik egin gabe, haurrak bere garapenean interesa izan dezan, bere egunerokotasuna bideratzeko eta aldi berean etorkizuna indartzen laguntzeko. Jolasaren bidez, sentimenduak adierazi, harremanak deskubritu, bizipenak islatu, nahiak izan, izaera ziurraz hazi eta Nia eraikitzeak aukera du. Axlinen ekarpena kontuan harturik, haurra, jolas terapeutikoaren bidez, zintzotasuna, bizitasuna, berezitasuna... adierazteko gai da. Bere ustez, helduak, jolas libreari terapia ez-zuzenduaren oinarriko printzipioak aplikatzen dizkionean lortzen du haurra bere barne munduaz jabetzea. Heldua, haurrak adierazten dituen sentimenduak errekonozitzeko erne dago. Horiek haurraren berriz islatzen ditu eta haurra orduan jabetzen da bere jokabideaz eta horiek ulertzeko

gai izango da.

Horretarako, jolas-terapian formaturiko Pedagogia Terapeutikoko helduak, atxikimendu ziurra, haurtzaroren ezagutza eta teknika zehatzak eskainiz, jolasaren bidez, haurraren momentu ludikoak sortuko ditu haurrak bere barne mundua proiektatu ahal izateko, eta aldi berean, haurraren ezaugarriak, bizi esperientziak, adina, familia eta testuinguruari esanahia emateko. Oaklanderrek (1988) esan bezala, helduak jolas-tekniken bidez teorien ulermen osoa lortuko du praktikarekin batera uztartzen duenean.

Gure ustez, eskolan ikuspuntu humanista honen balioak aurrera eramatea lagungarria suertatzeaz gain, posible ere bada. Eskolan ditugun hainbat material erabili ditzakegu adierazpen ekintzak sortzeko; pintura, buztina, txotxongiloak, musika tresnak, jolas sinbolikorako elementuak (pertsonak, animaliak, harriak), psikomotrizitate gela... Honetaz gain, tekniken artean erregina dugun Hondar kaxa (Sandplay) erabili dezakegu, haurrek beraien barne mundua elementu sinbolikoen bidez proiektatzeko edota une sentsorialak bizitzeko.



PROPOSAMENA

ORBELA ATERPETXEA

Natura, kontrabandoa eta akelarreak

Beintza-Labaiengo Orbela aterpetxea toki paregabe batean dago: basoz inguratutako kokaleku hau kontrabandisten eta sorginen bizileku izan da. Eskaintza zabala dauka eskola-umeentzat.



Basa da natura, Pirinioen magaleko bailara honetan. Berdea eta hezea da lurra. Malkartsuak dira mendiak; kiribilak, errepideak. Istorio asko gordetzen dituzte Amezitia erreka-ibarburuko harkaitz eta zuhaitzek. Kontrabandisten lurra izan baitira Beintza-Labaiengoak, eta sorginen bizileku, berriz, lehenagotik. Arnastu egiten da hori.

Naturaz gozatzea, horixe da Beintza-Labaiengo Orbela aterpetxeak eskola-umeei eskaintzen dien aukera. Natura bizitzea. Izan ere, paraje paregabean dago Orbela aterpetxea, Nafarroako mendialdearen biho-

tzean, Bidasoa eskualdean: Leurtzako urtegietatik gertu, gaztainadiz eta pagadiz inguratuta, baina zabal-gune atseginean.

Orbela aterpetxea 1992an hasi zen ikastetxeentzat eta aisialdi-taldeentzat jarduerak antolatzen, eta, orduetik, 30 bat ikastetxe hartzen ditu urtero, mila ikasle inguru. Aterpetxe txikia da, baina esperientzia handikoa.

Naturaz gozatzeko bitartekoak kirola, jokoak eta jolasa dira Orbelan. Aterpetxeak ibilaldien eta bisiten eskaintza zabala dauka ikastetxeentzat: Leurtzako urtegiak eta basoa ezagutzeko, ibilaldiak eskaintzen dizkigute; basoetan barrena, ipuin

mitologikoak eta kondairak ezagutzeko dizkigute; espeleologia egiteko aukera izango dugu Lezealde Txikin; zaldiz egin ditzakegu ibilaldiak; inguruko herriak (Amaiur eta Zubietan) ezagutzeko parada izango dugu... Horrez gain, hiru lantegitan parte har dezakete eskola-umeei: taloak egitekoan, herri-kiroletan edo ginkanan.

Natura bizitzeko eta ezagutzeko, natura-interpretazioko ibilbideak eskaintzen ditu Orbela aterpetxeak:

- 1. Leurtza, baso atsegina:** malda apaleko bide zabal batetik egiten da bost kilometroko ibilbidea, aldizka, biderik gabe-

ko basoan barna.

- 2. Sarasola gaztainadi zaharra:** mendi magaleko bide eta bi-dexketatik egiten da bi orduko ibilbidea, bostehun urteko bizitza duten arbolen artean igaroz.


Egun erdiko txangoak ere egin daitezke:

- **Baztangoiza, Donejakue bidea:** Baiona eta Iruñea lotzen ditu Donejakue bidearen adar honek, eta, Baztango lurretan barrena, Amaiurtik Arizkungo herrira eramango ditu ibiltariak lau orduko ibilaldiak. Bide zabala eta leuna da zatirik handiengan, baina, tarteka, antzinako galtzadetatik ibiliko gara, hariztien eta harriz mugaturiko belaien artean.
- **Leurtza, pagadi biziduna:** Soratxipiko tontor belartsura garamatzen ibilbide hau Lantzeko lapurren kondairaren lekuko da, eta baita dagoeneko galdua den ofizio baten lekuko ere, ikazkinena.
- **San Juan Xar, herri-sinesmenak:** Arantzara eramango gaituen ibilbidean, ura da protagonista. Herri-sinesmenen arabera, osasun-propietate handiak dituen ura da.
- **Akelarreak, sorginak eta kontrabandoa:** harizti zaharren magalean, kareharriaren karstifikazioak hainbat zulo txiki eta pitzadura eragin ditu,

eta zulo horiek kontrabandoa gordetzeko leku egoki bihurtu dira historian.

Egun osoko bost txango egin daitezke, mendi-gidari eta begirale profesionalekin:

- **Bertizko Jaurerriko basoa:** Bertizko Jaurerria Natur Parkeko harizti eta pagadietan barna egiten da ibilaldia.
- **Beitza-Labaiengo basoa:** Leurtzako ikazkinen bidean gora, Beintza-Labaiengo herria inguratzen duten mendietan barnako itzuli zirkularra da.
- **Askoli, uraren kapritxoak:** ibilaldiak Intsusako Harmalako mendi kareharritsua inguratzen du.
- **Irubelakaskoa gotorlekua:** Arizkungo bailara ezkutuan, bidexka estuetan eta amildetietan barna, piramide itxurako Irubelakaskoa mendia dago. Hara eramango gaitu 15 kilometroko ibilaldiak.
- **Mendaur eta Ekaitza:** Mendaur (1.131 m) eta Ekaitza (1.046 m) mendiak begiratoki egokiak dira eskualdea eta Kantauri kostaldea ikusteko.
- **Arxuria, itsasoari begira:** Arxuria (750 m) mendi puntak kostaldeko ikuspegiez gozatze-ko aukera ematen du. Eta bidea sorginkeriaz zipriztinduta dago, Arxuria akelarre-leku izan baitzen.



ORBELA ATERPETXEA

Beintza-Labaien (Nafarroa)
948 450 014
www.orbela-beintza.com
info@orbela-beintza.com

Aterpetxeak ibilaldi eta bisiten eskaintza zabala dauka eskola-umeentzat:

- Lezealde Txiki kobazuloa
- Zuhaitzak eta ipuinak
- Uraren bidea
- Baserria: munduko oiloak
- Ibilaldiak zaldiz
- Amaiur eta Zubietako errotak ezagutzea

* (mendi-gidari eta begirale profesionalekin egiten dira irteerak)

Edukiera:

- 44 lagunentzako lekua du, bost logelatan banaturik
- Bi jantoki ditu, bakoitza 30 lagunentzat prestatua
- Bi egongela ditu, bata balioaniztunak, boulderrarekin
- Lorategi estalpeduna du
- Aterpetxearen ondoan, herriko pilotaleku estalia dago

Prezioak: Pentsio osoa 33 euro da, 6 urtetik beherako eskola-umeentzat eguneko, eta 36 euro, 6 urtetik gorakoentzat. Egun erdiko jardueren balioa 135 eurokoa da, eta 165 eurokoa, egun osokoena. Espeleologia-irteeren kostua 165 eurokoa da.



ATZEKO ATETIK



BIZITZAN BEHAR DIREN IRAKASGAIK

ZURIÑE HIDALGO MUSIKARIA ETA AURKEZLEA

Gogoan dut hain kuttuna, hain berezia eta bakarra den garaia: haurtzarora. Nik neurea Gasteizen, Donostian eta Zizur Nagusian igaro nuen. Bai, gure familia nomada izan da eta horregatik, akaso, gaur egun ere, halaxe ibiltzen naiz ni, nomada nire herrian.

Gogoan ditut nire haurtzaroko hainbat une eta nola ez, oso presente ditut eskola egunak. Zenbat oroitzen, eta zer nolako oroitzapen politak gainera. Gogoan ditut ikastetxe ezberdinak, irakasleak, lagunak, gelak, patioko momentuak, komunitate txutxumutxu amaigabeak, ikasturte amaierako jaialdiak... eta baita ikasgaiak ere. Matematika eta musika ziren nire gogoenak, baina natur zientziak ez nituen bate-re atsegin. Gainerakoetan ez bezala, honetan beti nahiko eskas ibiltzen nintzen. Nire ustez, lantzen genituen edukiak batetik (aitortu behar dut, gaur egun ere, natur zientzien mundua ez dela nire pasioa), eta hauek lantzeko modua edo erabilitako metodologia bestetik (esperimentala izan beharrean, oso teorikoa zen, dena liburutik ikastea) nire motibazioa oso txikia izatea suposatzen zuten.

Nik Haur Hezkuntzako ikaskek burutu nituen. Hezkuntzak eta umeen munduak txoratzen nau, eta berebiziko garrantzia duen esparrua dela uste dut. Kalitatezko hezkuntza baten beharrezko garrantzia, irakas-

lea izateko bokazioa eta motibazioa, haur bakoitzaren mundua ulertzea, errespetatzea eta hauei maitasuna ematearen garrantzia... hauek izan nituen irakasle izateko ikasketak burutzeko arrazoi nagusi.

Hiru urtez irakasle lanetan ibili naiz, bai Haur eta baita Lehen Hezkuntzan ere. Begirada atzera botatz eta ondoren, gaur egun jarritz, esan beharra daukat ezinbestekotzat ditudan bi ikasgaien hutsunea, zein baino zein garrantzitsuagoa, sumatzen dudala gure eskoletan: hezkuntza sexuala batetik, eta adimen emozionala bestetik. Eta ikasgaiak diot, benetan uste dudalako ikasgai moduan planteatu beharko lirakekeen bi gai direlako, bai Haur, Lehen eta baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere. Gure garaian bi hauen presentzia ia ez zen existitzen, eta gaur egun, zertxobait gehiago lantzen den arren (adimen emozionala haur hezkuntzako garaian batez ere), oraindik asko dago egiteko.

Hezkuntza sexuala

Bai LHn eta baita DBH-n ere, arreta handia pizten zigun gaia zen: SEXUA! Guau... hain gutxi erabiltzen zen hitza, hain gutxi hitz egiten zen horren inguruan, hain gutxi erakusten ziguten sexualitatearen inguruan... eta gu desiatzen geunden! Guretzat, misterioz jositako hitza zen. "Sexua" entzun eta denak barreka hasten ginen. Sexuaz/sexualitateaz galdetu eta 2-3 kontzepturekin soilik lotzen genuen, normalean: alua, zakila eta txortan egitea. Egia esan, gai honekin lotutako oroitzapenak oso presente ditut eta oso modu zehatzean azalduko ditut:

-LHn: sexualitatea giza anatomia-
ren esparrutik soilik lantzen genuen,
hau da, sexu-organoak eta ugalketa
aparatua ikasten genituen. Gaia
ezaugarri anatomikoen ikuspegitik
soilik lantzen genuen. Eskuak burura
eramateko moduan... benetan tamal-
garria, baina hala zen.

-Eta DBHn, antzeko moduan lan-
tzen genuen, beti ikuspegi beretik,
ikuspegi genitala eta erreprodukti-
boa, baina gaian pixkat gehiago
sakonduz. Hori bai, urtean bitan,
DBHko hirugarren eta laugarren
mailan, sexologia saio "bereziak"
izaten genituen. Bi aditu etorri
eta besteak beste, kondoiak nola
ipintzen ziren azaldu, konpresak eta
tanpoiak banatu... egiten zuten. Eta
bai, konpresak eta tanpoiak etxera
eraman eta erabilgarri genituen, izan
ere, adin horrekin gehienak hile-
rokoa genuen. Eta noski, kondoi-
nondik norakoak ikasten genituen
(zergatik erabili, hauen garrant-
ziaz...), baina horrera arte, punto.
Non geratzen dira gainerako gaiak?
Masturbazioa, plazera, harremanak,
errespetua, aurreiritziak, beldurrak,
gezur eta egiak...

Kuriosoa da baina jarraian, anekdo-
ta bat kontatzera noa. Lagun sexo-
logo bat daukat, DBHko ikasleekin
aritzen dena. Pasarte asko kontatu
dizkit, zein baino zen harrigarria-
goak, egia esanda, kezkatzeko
modukoak, eta hauei esker, berriz
ere hezkuntza sexuala behar bezala
lantzearen garrantziaz ohartu naiz:
Neska askok, plazerra ematen dieten
euren gorputzeko atalak ezagutu,
esperimentatu, gozatu... aurretik,
hau da, nork bere buruari plazerra
eman aurretik eta gustatzen zaiena

jakin aurretik, masturbatu aurretik... larrua jo dute. Eta harro esaten dute: "Bai, nik dagoeneko larrua jo dut". Bai, "larrua jo" dute, "sartze eta irtete" bat egon da, baina besterik ez. Ekintza bera egitea garrantzitsua goa egiten zitzaizen sentitzen zutena baino, eta noski, gehienek esaten zuten ez zekitelara zer zen orgasmo bat, ez zutela halako plazer handirik sentitzen... baina aizue, larrua jotzen zuten! Zerbait gaizki egiten ari gara, eta ez naiz inondik inora irakasleei errua botatzen ari, izan ere, kontu hau bai eskolan eta baita etxean ere landu beharrekoa baita. Errua bizi garen gizarte honi botako nioke, gizarte sexista, emakumeekiko hipersexualizatua, guztiz genitalizatua, tabuz beteriko testuinguru batean... gai honekin luze jarraituko nuke baina berriz ere eskolara noa.

Sexualitatea, bai eskolan eta baita etxean ere, umeei normaltasunez eta gure egunerokoan landu beharko genukeen gaia dela uste dut,

hezkuntza sexualaren barruan, jorratu beharreko hainbat gai garrantzitsu daudelako: sexualitate eta identitate eredu ezberdinak, aniztasuna, berdintasuna, norberaren gorputza ezagutzea, errespetatzea eta maitatzea, harremanak, familia ereduak, masturbazioa... zerrenda amaigabe bat osatu arte. Gainera, ikaslearen adina aintzat hartzen delarik, hainbat material eta gidaliburu topa ditzakegu, HHTik DBHra.

Laburbilduz, sexualitatearen gaia ez da soilik sexu-organoetara eta ugalketara mugatu behar. Ikuspegi global batetik landu beharko genuke, sexualitatea modu normal eta aske batean bizi ahal izateko.

Adimen emozionala

Guraso denek nahi dute euren seme-alabek ikasgai guztiak gainditzea, nota onak ateratzea, baina benetan hau al da garrantzitsuena? Biharko egunean, zertarako balioko dute *bikain* horiek guztiek, hauraren

trebezia psikologikoak behar bezala landu ez badira?

Nork bere emozioak identifikatzea, aztertzea, kudeatzea, ulertzea... eta erreprimatu gabe, hauek azaleratzea, adieraztea, eta aldi berean, besteen emozioak ere identifikatu, ulertu eta errespetatzea, egon daitekeen lorpenik handienetariko bat dela uste dut. Haurrak benetan adimentsu bihurtzen dira euren buruak eta besteenak ezagutu, errespetatu eta maitatzen dituztenean. Gure emozioak ezagutu eta kontrolatu gero, bai gu eta baita gainerakoak ere zorionsuago izango gara. Komunikazio enpatikoa, errespetua, oreka emozionala, konfiantza... *adimen emozionala* ikasgaia modu on batean jorratuz gero, dena lorpenak dira, horregatik, gizarte osasuntsuago bat lortzeko bidean, adimen emozionalaren nondik norakoak erabilita hezi ditzagun gure txikiak, etorkizunean pertsona benetan adimentsuak izateko, gizarte hobe bat lortzeko.

GRADUAK ONLINE

Haur Hezkuntzan eta
Lehen Hezkuntzan.
Gradu osoa online egiteko aukera.

EGOKITZAPEN IKASTAROAK

Irakaskuntzan diplomatuentzat.
Gradu titulu berrira egokitzeko
aukera.

BIGARREN GRADUA / BIGARREN AIPAMENA

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan
edo beste gradu bat egiteko aukera.

Informazio saioak

MAIATZAK 6
11:00etan (larunbata)

EKAINAK 15
18:00etan (osteguna)

ARETXABALETA

ARGITALPENAK



UDA BAT SENEGALEN

Lur Gallastegi / Susanna Martin

ELKAR

Garazik eta Izarok ustekabe galanta hartuko dute, aita esaten dienean uda osoa Senegalen pasatuko dutela, aita erizainak bertako ospitale batean laguntzen duen bitartean. Hasieran dena da berria: jendea, giroa, etxeak, usainak... Lagunak egiteak ere ez dirudi erraza... Hala ere, sorpresa hunkigarritz beterik egongo da Afrikako egonaldia.



ERNESTO ETA ZELESTINA, KALE MUSIKARIAK

Gabrielle Vincent

PAMIELA-KALANDRAKA

– Begira, Zelestina, euria ari du ganbaran. Teilatua konpondu beharko dugu negua hasi aurretik.

– Baina, diru asko kostatuko zaizu, Ernesto, gaixoa. Nola egin behar duzu? Lagunak laguntzeko daude. Hartz batek eta sagutxo batek musikan aurkituko dute diru premiari aurre egiteko modua.



ESPAZIOAREN ESPLORAZIOAREN HISTORIA

Stephanie Lesu / Stephane Frattini

TTARTTALO

Espazioaren konkistaren historia Eguzki-erlotjirik Marte zapaldu arte. Lehen gizakiek ere begiratzen zieten izarrei. Geroago, izarretan urtaroen hurrenkera irakur zitekeela ohartu ziren. Zientziak ezagutza ekarri zuten. Gizakiaren eta zeruaren abentura handia ipuin antzera kontatua dokumental zoragarri batean!



MILA BI ETXETAN BIZI DA

Koppens, Judith / Nijs, Anouk

TTARTTALO

Milak bi etxe ditu: batzuetan, amaren etxean bizi da, eta bestetan, aitarenean. Amaren etxean, Milak hortzak eskuila berdearekin garbitzen ditu. Aitaren etxean, berriz, eskuila gorri batekin. Egia esan, ez da gauza bera izaten amarekin egotea, edo aitarekin. Baina amatxorentzat eta aitaxorentzat Mila munduko neskatilarik maitagarriena da.



LOTARA eta JATERA

Liesbet Slegers

IBAIZABAL

Akordeoi bildumako kartoizko liburuak dira biak. Zabaltzen diren orrialdeak dituzte eta gordetako elementuak, marrazkiak eta testuak. *Lotara* liburuan, animaliak esna daudela ikusten da, haien familiakoak, oster, lotan. *Jatera* liburuan, berriz, saltoka, jolasean eta korrika agertzen dira animaliak. 18 hilabetetik gorako haurrentzat dira.



HODEIETAN

Txabi Arnal / Enrique Morente Luque

ELKAR

Galaxiako ume zoriontsuena zen liburu honetako protagonista, Txoria eta Txakurra berarekin izan zituen bitartean bai bederan. Baina zorigaitz-toko goiz batean, bi lagunak galdu egin zituen, izan ere, Txoria eta Txakurra ez ziren maskotak, lagunak baizik. 6 urtetik aurrerako umeentzako a proposa da liburu hau.

NUR

eta
Herensugearen Tenplua

**Zinemetan
lehen aldiz !**
ekainaren 2tik aurrera

ZUZENDAKIA: Juanjo Barriuso | GUZTIA: Txiki Barrio, Beñatxo Chiriboga, Mikel Lizaraso, Mikel Lizaraso, Mikel Lizaraso
ARRAZO ZUZENDAKIA: Inma Domínguez | ARGAZKI ZUZENDAKIA: Edoardo Gago | STORY BOARD: José Ángel López



BARTON FILMS



etb



UDAKO TOPAKETAK



Uztailaren 3, 4 eta 5an DONOSTIAN
Uztailaren 6an eta 7an LEIOAN



Pikler-Loczy: hanreman-egoera zailen aurrean, zer? - Montessori pedagogiari hurbilpena (2-6 urte artean) - Ikasleak erakarri, euskaraz egin nahi izan dezaten - Bizitzaren eskola: askatasunerako pedagogia - Pedagogia Sistemikoa - Adimen Anitzak eta Autoestimua - Mindfulness (Arreta osoa) - Jendaurrean hitz egiteko teknikak - Eskola emozionala - Aho bete amets: (0-6 urte) - Pentsamendu autonomia eta sortzailea - Garapen pertsonala irakasleentzat - Nola saihestu eta kudeatu eguneroko gatazkak - Gorputzaren bidez arreta garatzeko teknikak - Alexander teknika - Antzerki teknikak - Espresso tailerra - Haurrei ipuinak kontatzeko trebatzen - Entrenamendu Mentalaz eta Arnetsak - Letra azkarrak testuen giltzari - Motibatu nahi? - Yoga eta kontzentrazio teknikak - Kontzeptu Mapak hezikuntza xedeetarako - Txobongilo eta ipuinen mundu magikoa - Hauraren autoestimua - Gure eskolak mila kolore dituelako - Gorputzetik simbolizatzen gaitasunetara - Musikaren baliabide tekniko eta espresiboak - Portaera Arazoel hurbilketa bat. Nola ulertu, nola jokatu - Mindfultyoga. Burua eta gorputza bat egirik - Donamartiniko Arberoa ikastola. Komunikazio Ez Bortitza - Gorputza irakaskuntza prozesuan txertaten - Psikoterapia eta gorputza hezikuntzan - Gorputz Adierazpena: lan emozionala eta lan kooperatiboaren ikaskuntza iturria - Plastika tailerra - Lau elementuak euskal mitologian - Uztailaren 3 eta 4ko arratsaldeetan taller irekiak edonorentzat.

Informazioa eta izena ematea www.hikhasi.eus helbidean